


Berrigara



Hies Ekimena

Bederatzi urte gaitzari aurre egiten

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

Biltegia eta bulegak: Meatzereka, 6 - Tel./Faxa: 943 511 28 - ARRASATE



Gozatu udaz urte osoan zehar

 **902 123 456**
NaturGas, Euskadiko gasa



NaturGas



Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.



Futbolak ez du hala-holakorik nahi

Juan Antonio Migura / Kazetaria

Realak Javier Clemente fitxatu izanak nahasmena ekarri du futbol gipuzkoarrera. Erabaki arriskutsu horrek txuri-urdinen zaletuen zatiketa eragin du. Traizionatutako sentimenduen krisia ei da, Athleticen nahiz Clementeren kontrako erantziz. Clementek aldekoak eta kontrakoak dauzka, erabatekoak, gainera; maitasun/goroto-sentimendua sortzeko gaitasun ikaragarria dauka, ia beste inork ez bezalakoa. Futbol-munduan, inork gutxi esan lezake hainbeste kontrako daukanik. Hala ere, horrek ez dio ardurarik sortzen Clementeri; aitzitik, harro sentitu eragiten dio.

Gaur egungo futbol-kontsumitzaileen ztat izan zitekeen albisterik onena da Clementeren fitxaketa. Horrek, baina, ez du esan nahi Realeko Zuzendaritza batzordeak asmatu egin duenik. Erabakia hartzerakoan, seguru asko, arinegi jokatu zuten klubeko agintari kaxkar horiek; izan ere, presidentea burua altxatu ezinik dabil fitxaketaekin, zelabait, mendeku hartu nahi izango zuen; barne ondorioak ondo neurtu barik baina.

Gaur egungo futbola negozio hutsa da, eta jokorik ematen ez duten pertso-

naiek ez daukate bertan tokirik. Norbaitek borrokarako gogoia badauka, hobe benetan pisuzko arrazoiren bat badago tartean. Kraussen modukoak (lehen mailako entrenatzailea, ziurrenik; pazientzia agindu bai, baina eman ez diotena) ez dira egungo klub baten inguruan mugitzen diren in-teres ezberdinen artean igeri egiteko gai. Clemente bai. Agintariak haren beldur dira; jokalariek errespetatu egiten dute. Hain da ausart eta polemikoa!. Ikuskizunaren atal bat da bera, eta ikusleen etorrera bermatzen du: ondo doanean, onena delako; gaizki doanean, irain egiteko.

Ranieri, Toshack, Fernandez edota Clementeren modukoak dira belaunaldi berria. Euren errautzetatik behin eta berriro berpizteko gaitasuna daukate, ilusio-sortzaileak dira.

"Egoerak hobera egiten ez badu, ez Clementeri begiratu. Berak badaki zertan diharduen; ez du irakasleen beharrik"

Futbolzaleak, Clementeren aldeko edo kontrako izanda ere, ezin dio, inola ere, futbola gizartearen txokorik ezkutueneraino erotekeo gauza denik ukatu. Showmana da. Ikuskizuna zelaian nahiz zelaitik kanpo nahi duen futbol bateko showmana. Telebista-audientziari eta prentsa-titularreri jokoari berari baino arreta gehiago jartzen dion futbol bateko showmana.

Egoerak hobera egiten ez badu, ez Clementeri begiratu. Berak badaki zertan diharduen; ez du irakasleen beharrik. Zergatik ez duzue barrura begiratzen? Zergatik ez diozue zeuon buruari galdetzen zer pasatzen ote zaion Realari, zer helburu daukan?

Badira jokolari onenak alde egiten dutelako bizitza osoa sufritzen pasatzeko gertu dauden zaleak, baina badira, era berean, beste batzuk, futbola negoziotzat hartuta, helburu bakarra dutenak: irabazi. Zeren truke begiratu barik.

Txapeldunen Ligak partehartzaileen kopurua handitu zuenez geroztik, UEFAn sartzea ez da proiektu interesgarria. Txapeldunen Ligara heldu beharra dago: Clementerekin edo Clemente barik. Eta bes-tela, presidentea aldatu...<

barruan




J. Ignacio Telleria

Hies Ekimena taldekoa

"Seropositiboak, orain ere, zailtasun askori egin behar dio aurre, marjinatuta dago"

18.



J. Manuel Iturrospe

Auto telegidatuzalea

"Euskadiko txapelketan, lehenengo lauen artean sailkatuta, konforme"

23.



Nerea Zubimendi

Goxo-Toki dendakoa

"Ez naiz oso goxozalia. Hala ere, arroz pastela eta sagar tarta gustatzen jat gehixen"

29.

orain dela...

BAILARAN GERTATUA

1930. Azaroan Bergarako Batzokian elkartu ziren 124 uri batzarretako ordezkariak EAJ eta Comunion alderdiak batzea onartu zuten. Alderdi berriari ere EAJ izena eman zitzaion eta batzar hartatik sortuko zen handik aurrera alderdi berriaren buruan izango zen belaunaldia: Agirre, Leizaola, Ajuriagerra, Monzon, Irujo eta abar.

1777. Azaroaren 4an Bergarako Errege Mintegia sortu zen.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1521. Azaroaren 6an Joan Sebastian Elkano hil zen.

1933. Azaroaren 5ean Lizarrako Estatutua onartu zen erreferendumean.

MUNDUAN GERTATUA

1957. Azaroaren 3an Sobiet Batasunak Sputnik II satelitea espazioratu zuen. Bertan Laika txakurra zihoan.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzaren 29

9-14-15-20-36-49 (osag.35/itz.5)

Astelehena 1

5-18-21-27-35-45 (osag 30/itz.0)

Martitzena 2

17-18-21-24-32-49 (osag.11/itz.8)

Eguaztena 3

31-36-39-42-43-47 (osag.20/itz.9)

PRIMITIVA

Zapatua 30

3-13-35-36-46-48 (osag.31/itz.5)

Domeka 31 Saritzarra

6-16-31-36-46-48 (osag.29/itz.2)

ONCE

Eguakitzaren 29: 31.162 (051 seriea)

Martitzena 2: 44.070


Eguaztena 3: 80.131

BESTE BATZUK

Eibar-Gasteiz autopistaren aurka. Mendiko materiala: 15.707

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Urriko hego haize zakarren eta temperatura epelen orde, iparra eta temperatura freskoak nagusituko dira asteburuan. Zapatuan estalita agertuko zaigu zerua eta, tarteka, euria egingo du. Domekan, ostarteak zabalduko dira.

Ilargiaren aldiak



Ilbehera: urriak 31



Ilberri: azaroak 8



Ilgora: azaroak 16



Ilbete: azaroak 23

Eguzkia

Domeka, urriak 7



Sortu: 07:54



Gorde: 18:07

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 28	29	11	-
Eguakitzaren 29	24	10	-
Zapatua 30	21	10	-
Domeka 31	24	10	0,2
Astelehena 1	23	12	1,2
Martitzena 2	17	14	22,4
Eguaztena 2	17	8	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Atzo goizekoa ez izan

Aspaldikoa izan.
- Orrek izangoittu onezkero berrogetamar urte.
Ori beroi be ezta atzo goizekoa.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Eskailerak igo eta jaisteko

Minusbaliatuak eskailerak igo eta jaisterako orduan erosoago eta azkarrago ibil daitezten, eta gainera beste inoren laguntzarik behar izan ez dezaten, Hirotohi Hikota japoniarrak gurgil-aulki berezia asmatu du. Toyota enpresak urtero antolatzen duen "Ideia Olinpiada"n aurkeztutako prototipo honek gerretako tankeen gurgil sistemaren antzekoa darabil.

Farmaziak

Eguakitzaren 5:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Zapatua 6:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Domeka 7:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Astelehena 8:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 67

Martitzena 9:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 66

Eguaztena 10:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Eguena 11:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Ogia

Domeka 7: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak 112

DYA 943 78 71 55

Gurutze Gorria 943 76 55 78

Larrialdik 943 46 11 77

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 48

Anbulantzia 943 55 49 62

Udaltzaingoa 943 77 91 86

Ertzaintza 943 76 55 46

Suhiltzaileak 943 78 28 16

Osasun Etxea 943 76 24 48

Arrasateko ospitala 943 03 63 00

Asepeyo 943 76 16 46

Pakea 943 76 13 48

Angiozarko medikua 943 78 30 03

Antzuolako medikua 943 76 62 22

GARRIAOK

Euskotren 943 45 00 77

PESA 902 10 02 14

Taxiak 943 76 16 63

RENFE 943 28 28 58

UDALA

Udaletxea 943 77 91 86

Udal Artxiboa 943 77 91 86

Igerilekuak 943 76 20 91

Kultur Etxea 943 77 91 86

Liburutegia 943 77 91 86

Mizpirualde Egoitza 943 76 16 63

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 16 63

Erregistroa 943 76 16 63

Jardun 943 76 20 91

Jubilatuaren Etxea 943 76 20 91

Postetxea 943 76 28 58

zorion agurrak



Ainhoa Lazkano
Azaroaren 5ean
4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Aitor.



Juan Karlos Lazkano
9an urteak. Urte askotarako!
Aitor, Ainhoa eta emaztea.



Mariñe Diaz
Azaroaren 7an urtebete.
Urte askotarako!
Josu, Alatz eta Ibon.



Maika Jaso
Azaroaren 10ean
11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Marina Centeno
Azaroaren 8an
7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Ane Mujika
Azaroaren 5ean
2 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Iker Mellado
Azaroaren 6an
5 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Jokin.



Maite Zabaleta
Azaroaren 10ean
17 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Consuelo Sierra
Azaroaren 5ean
93 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maider Gago
Azaroaren 8an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Larrañaga
Azaroaren 7an
3 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta Martokoko lagunak.



Amaia Iparragirre
Azaroaren 10ean urtebete.
Urte askotarako!
Gorka eta Ane.



Roberto Zurro
Azaroaren 6an
65 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jose Antonio Aiestaran
7an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ane Cabrera
Azaroaren 11n urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maialen Legorburu
Azaroaren 8an
14 urte. Urte askotarako!
Ana eta Mireia.



Itxaso Gantxegi
Azaroaren 7an
2 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Markel Manuel
Azaroaren 10ean
5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Ane Aramendi
Azaroaren 7an
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ander Fuentes
Azaroaren 6an
3 urte. Urte askotarako!
Arreba Ana eta familiakoak.

Datorren asteko alean,
AZAROAREN 12a
eta **AZAROAREN 18a**
bitartekoen
zorion agurrak
argitaratuko ditugu.

hildakoak

**Aste honetan ez dugu hildako-
en berri jaso ez Bergaran eta
ez Antzuolan.**

jaiotakoak

**Aste honetan ez dugu jaiotako-
en berri jaso ez Bergaran eta
ez Antzuolan.**

mezak

Santa Marina
Domekak: 11:30, 13:00.

Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu
Domekak: 10:00.

Ubera
Domekak: 10:30.

San Juan
Domekak: 11:00.

Basalgo
Domekak: 13:00.

San Prudentzio
Domekak: 10:30.

Labegaraieta
Domekak: 11:00.

San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.

Angiozar
Domekak: 10:30.

Eguakitza: 19:00.

Monja Zaharrak
Domekak: 19:30.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde
Domekak: 11:45.

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga
Domeka: 10:00.

URTE-MEZAK
Santa Marina

Hileko 2. astean,
domekan 11:30etan.

San Pedro
Hileko 3. astean,
domekan 12:30etan.

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.
Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.
Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.
Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.
Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Laneg.: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► Euskal Antzerki

Topaketak Azpeitian; bihar, zapatua, Gorakada antzerki taldearen "Ilargia lekuko", 21:30etan Zelaitxo antzokian.

MUSIKA

► Jam. Gaur, eguakitz, **No use for a name, Snuff, Tilt, Mad Caddies eta Consumed** taldeak, 20:30etatik aurrera (2.300 pezeta takilan, 2.000 aurrez); bihar, zapatua, **Metal church, Marshall law eta Thunder** taldeen kontzertua, 22:00etan (2.500 pezeta takilan, 2.200 aurrez); domekan, **Jean Jaques Milteau eta Manu Galvinnen** blues emeraldia 20:30etan. Azkenik, datorren ostegunean, hilak 11, **Hefner eta Mondo Fumatore** taldeak, 21:30etan.

ERAKUSKETAK

► **Iker Badies Korkostegiren akuarelak** Kultur Etxean, azaroaren 9tik 21era.

IKASTAROAK

► **Yoga ikastaroa** Gloria Enaren eskutik. 943 76 11 38.

DEIAK

► **Eibar-Gasteiz autopistaren aurkako itxialdia.** Gaur,

KONTZERTUA

Loreto Imaz

Non: San Pedro parrokian
Noiz: zapatuan, azaroak 6, 20:00etan
Sarrera: doan

Loreto Imaz organo jole donostiarren kontzertua izango da bihar, zapatua, San Pedro parrokian, Udazken Kulturaleko programazioaren barruan. Imazek Donostian bertan egin zituen piano ikasketak eta oso gaztetatik maila bikaina erakutsi du, hainbat sari eskuratuz. Bernadette Carrau zuzendariaren laguntzaz, Baionako Kontserbatorioan organo ikasketak egin zituen eta, besteak beste, "Medaille d'or 'a l'unanimité" eta "Prix de la Ville de Baionne" lortu zituen. Xavier Darasse-ren eskutik, bere prestakuntza Toulousen jarraitu zuen eta, aldi berean, espainiar musika ikasten aritu zen Montserrat Torrent-ekin batera. Michael Radulescu maisuaren zuzendaritzapean, berriz, organo ikasketak sakontzen jarraitu zuen. Duela 11 urtetik, klabezin katedraduna da Donostiako Kontserbatorioan.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin ere sarritan lan egin izan du Imazek eta, horrez gain, Capilla Peñaflorida, Capilla de las Cuatro Iglesias edota Kontakarion taldeekin kolaboratu izan du azken urteotan. Era berean, Francisco Escudero eta



San Pedroko organoa, Udazken Kulturaleko protagonistetako bat.

Jose Garcia Romas konpositore ezagunek euren lanak eskaini izan dizkiote estreina ditzan. Bestalde, klabezin zein organo bakarlarri gisa, Alemania, Frantzia, Holanda, Belgika eta Italiako hainbat jaialditan parte hartu izan du. Biharko emanaldian, besteak beste, J.S. Bach, J. Brahms, C. Frank, J. Gonzalez Bastida, Michael Radulescu edota Guridiren piezak joko ditu.

eguakitz, enkartelada eta itxialdiaren hasiera 20:00etan San Martin plazan. Bihar, zapatua, 11:00etan parodia eta ondoren, mahai-ingurua Justo De la Cuevaren eskutik. Domekan, hilak 7, mendi mar-txa obrak ikusteko, 10:00etan San Martin plazatik.

► **Beheko Estazioaren indultuaren aldeko ibilaldia** domekan, hilak 7, 11:00etan San Martin plazatik aterata.

► **Mendi irteera Bakio-Jata-Gorlizera** azaroaren 14an, egun guztirako, 8etan Frontoitik. Txartelak Pol-Polen.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 10, 18:30etan.

► **EAJ.** Ez-ohiko batzarra eguenean, hilak 11, 20:00etan Batzokian. Alderdikide guztiei bertara joateko dei egiten da.

► **Mariaren Lagundia**

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Ikastolako topaketa eguna
 azaroaren 20an, ikasle ohi, irakasle eta gurasoei zuzenduta.
 11:00etan, harrera, 11:30etan, eukaristia; 13:00etan, diaporama eta ikastolara bisita, eta, 14:30etan, bazkaria. Izen-ematea eguaztenera arte zabalik.
 Txartelak, 3.500 pezeta.
 Argibideak: 943 76 25 40.

OHARRAK

► **Ondasun Higiezin**
 Gainera Zergaren (rustika eta urbanako kontribuzioa) eta Ekonomi Jardueren Gainera Zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 10era arte izango da zabalik. Ondoren, exekutibako epeari emango zaio hasiera.
 Argibideak: 943 77 91 64.

JAIK

► **Internazionalista eguna**
 domekan, hilak 7, Astigarragan.

KINTADAK

► **1940an jaiotako afaria**
 azaroaren 13an Antxoni jate-txean. Izen-ematea eta argibideak 943 76 45 75 (Begoña) eta 943 76 34 36 (Mari Tere) telefonoetan.

► **1955ean jaiotako afaria**
 azaroaren 13an Azeitxi jate-txean. Izen-ematea (2.000 pezetak aurrerapena) Frontoiko tabernan edo Azeitxi jate-txean.

► **1945ean jaiotako afaria**
 azaroaren 13an Torrekua erre-tgian. Izen-ematea bertan.

► **1953an jaiotako afaria**
 azaroaren 20an Tartufo jate-txean, 21:30etan. Bertara joateko autobusa 21:00etan aterako da Frontoitik. Izen-ematea Kiñun eta Frontoiko tabernan.

► **1959an jaiotako afaria**
 azaroaren 20an Antxoni jate-txean. Izen-ematea bertan.

► **1972an jaiotako afaria**
 azaroaren 20an. Izen-ematea Eusebio II tabernan.

► **1946an jaiotako afaria**
 azaroaren 27an Tartufo jate-txean. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Izen ematea: 943 76 35 51 (Begoña).

► **1980an jaiotako bazkaria**
 azaroaren 27an Zabala jate-txean. Izen-ematea hilaren 20a baino lehen Zabalán.

► **1944an jaiotako afaria**
 azaroaren 27an Azeitxi jate-txean. Aurretik, 19:00etan, meza izango da Santa Marinaran. Izen-ematea hilaren 22a baino lehen 943 76 23 70 (Sanchez ileapaindegia) edo 943 76 42 42 (Jesus Aperribai) telefonoetan.

► **1927an jaiotako anaiarteko eguna**
 azaroaren 28an. Santa Marinaran meza izango da 13:00etan eta bazkaria 14:30etan, Antxoni jate-txean. Izen-ematea Antxonin azaroaren 24ra arte zabalik.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Eyes wide shut

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

El diablo metio la mano

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00.

ARRASATE. Alai zinema

Nunca me han besado

Eguakitza: 22:00.

Una terapia peligrosa

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitena: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

El club de la lucha

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Hoy empieza todo

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:30.

Martitena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

American pie

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

El coronel no tiene

quien le escriba

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola

Vampiros

Zapatua: 20:00.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Siempre locos

Eguena, zine-kluba: 20:15.

EYES WIDE SHUT


Zuzendaria: Stanley Kubrick.

Aktoreak: Tom Cruise, Nicole

Kidman, Sydney Pollack.

≥ 18 URTE

Stanley Kubrick ospetsuaren azken filmeak sekulako ikusmina piztu zuen estreinua baino lehenago, Kubricken beraren heriotza eta ia sekretupean egindako errodaia zela eta. Bere azken filmean, bikote baten krisiaren inguruko hausnarketa azaltzen digu; *Alice* (Kidman) bere emazteak iraganean bizi izandako esperientzia baten berri izan ondoren, *Harford* medikua (Cruise) tranpaz jositako labirinto batean murgilduko da...



EL DIABLO METIO LA MANO

Zuzendaria: Rodman Flender.

Aktoreak: Devon Sawa, Seth

Green, Elden Henson. ≥ 13 URTE

Halloween egunean, Anton gazteak (Devon Sawa) bere baruan kontrolatu ezin duen indar bat dauka eta horrek arazo dezente ekarriko dizkio... Efektu bereziak eta umore beltza oinarri dituen filma.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
 Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

LONBIDE

OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



Mujika

gorrologia



Berezitasunak:

Bizkotxoak

Errellenoak

Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

.....Berrigara Gida 2000

Bergara eta Antzuolako telefonoen gida prestazen dihardugu.

Ainhoa Altuna (ezkerreko argazkian) eta **Uxue Lazkano** ari dira komertzial lanetan, dendari, ostalari, lantegi eta profesionalen telefonoak jasotzen.



Aurten ere intereseko telefonoak, komertzioenak eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 2000 liburutxoak:

Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.

lazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke: **943 76 03 97.**

Berrigara

Ordubeteko lan saria Raul Luque gaztearen alde abenduko nominan

Raul Luqueren lagunen eta herriko sindikatuen ekimen berria

Raul Luqueren alde ordubeteko lan saria ematea proposatuko diote bergararrei Raul Luqueren lagunek eta sindikatuek. Gaur arratsaldean egitekoa den prentsaurrekoan azalduko dute Aita Menni ospitalean ingesatuta dagoen bergar gaztearen aldeko ekimen berria.

ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta EHNE sindikatuek bat egin dute bergar gaztearen errekerazio gastuei aurre egiteko bultzatu nahi duten ekimen berriekin. Asmoa abenduko nominatik ordubeteko lan saria Raul Luqueren alde ematea da. "Alkate, zinegotzi, maisu-maistra, ertzain, sendagile edota langile orori eskatzen diogu beren laneako ordu baten diru-ordaina eman dezala Raul eta bere familiarentzat" irakur daiteke BERRIGARARA igorritako idatzi batean.



Raul Luqueren alde sosak batzeko antolatutako moda desfileko irudi bat.

Bi helburu nagusi lortu nahi dira ekimen berri honenkin: alde batetik, ospitaleko gastuei aurre egitea eta Raulen familiarekiko elkartasuna adieraztea, eta, bestetik, etorkizunean horrela-


ko kasuren bat gertatuko balitz, gastuei aurre egiteko fondo bat sortzea. "Gizarte segurantzaren egoera tamalgarrria salatu nahi dugu, ez baitu gutxieneko baldintzarik eskaintzen Raul bezalako gaisoak errehabilitatzeko. Horretaz gain, Udalarari eskatu nahi diogu fondo bat sor dezala errekurtsorik ez duenari laguntzeko" diote Raulen lagunek.

Sindikatuek idatzi bat banatuko dute herriko lantokietan nahi duten langileek sinatu dezaten. Idatzia abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da lantokietako pertsonal sailean. Idatzian bertan zehazten dira dirua sartzeko zazpi kontu korrente zenbakiak: Euskadiko Kutxa, BBV,

Central Hispano, Kutxa, Banco de Santander, La Caixa eta Banco Guipuzcoanoko kontu korrente zenbaki bana.

Raul Luque 19 urteko gazteak zauri larriak egin zituen joan zen ekainean, Bergarako jaietan, Bideberritik errekerara jausi zenean. Donostian ingesatuta egon ondoren abuztuan eman zioten alta, eta, harrezkero, hiru hilabete inguru eman ditu Aita Menni ospitalean.

Bertan ingesatuta egotearen, milioi bat pezeta inguru ordaindu behar du familiak hileroko. Gastu horri aurre egiteko hainbat ekimen antolatu dira irailaz geroztik Bergaran, tartean, aerobitona edo moda desfilea.



Bergarako langileek ordubeteko lan saria Raulen alde ematea proposatu da.



Joxe Mari Etxaniz askatzea eskatzeko iazko otsailean Bergaran antolatutako manifestazio jendetsuko irudi bat.

Etxaniz eta Eukene Graciaren aldeko manifestazioa bihar

Aurretik mozioa onartuko du Udalbatzak

Bergarara Plataformak Joxe Mari Etxaniz eta Eukene Gracia preso bergararrak aske lagatzeko manifestazioarako deia egin du zapatuko eguerdiko 12:00etarako San Martin plazan. Manifestazioa hasi baino minutu batzuk lehenago ez ohiko batzarra egingo du Udalbatzak bi preso bergararren aldeko mozioak aztertze-ko.

Mozioan, bai Joxe Mari eta bai Eukeneren egoerari buruzko azalpenak ematen dira. Joxe Mariren kasuan, 19 urte eta 7 hilabete daroala kartzelan eta zigorraren hiru laurdenak 1995eko otsailean bete zituela. Eukeneri dagokionez, berri- zigorren bi herenak iazko

otsailean bete zituela eta bera ere dagoeneko kalean egon beharko litzatekeela. Honenbestez, hiru puntuko mozioa onartu dezala eskatzen dio Bergarara Plataformak Udalbatzari. Alde bate- tik, Bergarako Udalak Jaime Mayor Oreja Barne Minis- troari idatzi ofizial bat bidali diezaiola Joxe Mari Etxaniz eta Eukene Graciaren aska- tasuna eskatuz eta idazkian adierazi dezala bi presoon egoera. Bestalde, Kartzela- ko zuzendari nagusia den Yuste jaunari beste idatzi bat bidali diezaiola gauza bera eskatuz. Hirugarren eta azken puntuan, Eusko Jaur- laritzako Giza Eskubideen batzordeko presidenteari zuzendu dakiola, Bergarako

Udalak aurreko bi puntuoi buruz eman dituen urratsen berri emanez eta, bere esku dituen indar guztiez baliatuz, Joxe Mariren eta Eukeneren askatasuna eskatuz.

EAJ, EH eta EA alderdiek mozioei baietza emango diote eta, beraz, Udalbatzak onartu egingo du. Plenoaren ostean, manifestazioa izango da. Besteak beste, talde politiko, sindikatu eta elkarte hauek agertu dute manifestazioarekiko atxeki- mendua: EAJ, EA, HB, Zuti- tik, EH, ELA, LAB, STEE-EI- LAS, ESK, EHNE, Elkarrri, Se- nideak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Euskal Presoak Euskal Herrira, Komite In- ternazionalistak, Eki eta Ja- rrai.

EAJ-EAk baino zinegotzi bat gehiago EHk Deba Garaian

EAJ-EA koalizioak baino zinegotzi bat gehiago lortu zuen EHk Deba Garaian joan zen ekainaren 13ko udal hauteskundeetan. Aurre- ko asteko BERRIGARA- n adierazi genuen EAJ- EAK zinegotzi gehiago lortu zuela, eta horre- gatik eskuratu zuela Man- komunitateko lehendakari- tza. Informazioa ez zen zuzena, esan bezala, EHk hauteskundeetan boto eta zinegotzi gehi- go lortu baitzuen, 40 zi- negotzi hain zuzen ere. Hala ere, Mankomunitatean EAJ-EAK ordezkari- guztiak gehiago du, udalez udal negoziatu baitira orde- kariak eta horregatik lortu du EAJ-EAK Manko- munitateko lehendakari- tza.

Negoiazioetan EHk garrantzia handiagoa eman dio Mankomunitateko estatutuak aldatze- ari. EHren ustez, hautes- kundeetan boto eta zi- negotzi kopururik handi- diena lortzen duenari dagokio Mankomunitateko lehendakari- tza. Mankomunitatean Deba Garaiko zortzi herri- tateko 16 ordezkari daude. EAJ eta EAK 9 ordezkari dituzte, EHk 6 eta inde- pendiente bakarra dago Gatzagakoa. Victoriano Gallastegi da Manko- munitateko presidentea eta Xabier Zubizarreta pre- sidente ordea. Bergara- ko Udaleko ordezkariak Mankomunitatean hiru- ko hauek dira: Victo- rio Gallastegi (EAJ), Mar- tin Guridi (EH) eta Jose- Antonio Etxeberria (EA-)

Beheko Estazioaren aldeko ibilaldia

Kapirixo elkartekoak eta ferrokarrilaren aldeko Azpeiti, Donostia eta Lizarrako elkartetakoak, besteak beste, aurrera doaz Beheko Estazioa bota ez deza-



Orain dela bi asteko firma bilketa.

ten eskatzeko antolatu dituzten ekimenekin. Domeka honetarako lehengo trenbide zaharretik zehar ibilaldia antolatuko dute. Goizeko 11:00etarako egin dute deia San Martin plazan. Handik Goiko Estaziora abiatuko dira eta, trenbide zaharretik, Mekolalderaino, ondoren, Vasco-Navarroko trenbide zaharraren kaminotik Beheko Estaziora heltzeko. Bertan, trenari buruzko Azpeitiko museoan dauden hainbat argazki erakutsiko dira.

Bestalde, datorren aste-rako trenari buruzko bi hitzaldi eta bideo emanaldia iragarri dituzte Uned-eko areto nagusian, 19:30etan.



JENDETZA HANDIA KANPOSANTUAN

Domusantu eguna hildakoak gogoratzeko eta kanposanturaino hurbiltzeko egun seinalatua izaten da. Joan zen asteburuan, zapatuan, domekan eta, batez ere, astelehenean, herritar ugari hurbildu zen hilerrira joandakoan alde errezatu eta hilkutxak lorez apaintzera. Herritarrek hurbiletik ikusi ahal izan zuten kaperaren egoera kaskarra. Udalak berrizteko asmoa dauka, baina ez du oraindik proiekturik egin. Hastear daude, bestalde, 105 nitxo berri eraikitze lanak. Udaleko langileek egingo dituzte lanok.

Deba Garaiko banatzaileen bigarren eskuko autoen lehenengo erakusketa







- 100 auto baino gehiago
- Marka guztiak
- Prezio guztiak
- Berme osoa

ARRASATE • Azaroak 6 eta 7 (9:00etatik 19:00etara)

Arruena Parkea (Hiper Eroskiren ondoan)



Antolatzaileak



Berrigara

386 zenbakia.
1999ko azaroaren 5a.

Errotalde Jauregia, 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria:
Eneko Azkarate,
Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil.

Maketazioa: Iñaki Iturbe,
Publizitatea: Uxue Zabaleta,
Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketa:
Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereizbar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azala: ECS/Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurleritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

ETXANIZ ASKATU, EUKENE ASKATU!

Bergarako herritarra den Joxe Mari Etxaniz Topas-Salamancako espetxean dago preso, Puerto de Santa Maria 2 espetxetik aldatu berri dutela eta. Kode penal zaharreko 98. eta kode penal berriko 91. artikuluen arabera, zigorraren hiru laurdenak beteak dituztenek baldintzapeko askatasuna lortzea posible da, beste hainbat baldintza betetzen direnean, besteak beste, kartzelako tratamenduaren hirugarren graduan egotea. Gradu hori ez zaio oraindik aitortu eta, beraz, zigorraren hiru laurdenak 1995eko otsailean bete zituen arren, ez dago aske.

Dena den, 19 urte eta 8 hilabete espetxean daramatza Joxe Mari Etxanizek, nahiz eta bere sumarioan odol delitirik ez izan.

Bergarako herritarra den Eukene Gracia, berriz, Granadako espetxean dago preso. Kode penal berriko 91. artikuluen arabera zigorraren bi hirurenak beteak ditu eta kartzelako tratamenduaren araudia beteko balitz hirugarren graduan izango litzateke eta, ondorioz, dagoeneko kalean. Hala ere, arrazoi politikoak direla eta, gradu hori ez zaio aitortu eta zigorraren bi herenak 1998ko otsailean bete zituen arren, ez dago kalean.

Injustizia hauen aurrean, Bergarara Plataformak Ber-


garako herriari dei egiten dio datorren larunbatean, azaroaren 6an, eguerdiko 12etan egingo den ez ohiko plenora eta honen ostean egingo den manifestazioa joan dadin.

Aipatu nahi dugu honako talde eta erakunde hauek azaldu dutela manifestazioarekiko atxekimendua: Bergarako Udala, EA, EA, HB, Zutik, EH, ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK, EHN, Elkarrri, Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Euskal Presoak Euskal Herrira, Komite Internazionalistak, Eki, Jarrai e.a.

Zuen partehartzea espero dugu. Legea bete dezagula!


Bergarara Plataformak

tira biraka: unai azkarate



■ atrebentzia ezpada

Heriotza-zigorraren alde ala kontra zare? Ezertarako balio dau heriotza-zigorrak?




Manuel Moreno

Heriotza-zigorraren kontra nago, eta uste dot ez dabela ezertarako balio. Bestiak beste, ez dabelako erailketakopurua gutxitzen.



Dolores Fernandez

Gaizkile eta erailiei heriotza-zigorra jartziaren aurka nago, nahiz eta benetako hiltzailiak diela frogau.



Roberto Ruiz

Bortxakeriak ez dauka zentzurik; biolentzia gehixago sortu besterik ez dau egitten. Horregaitik, heriotza-zigorraren kontra nago.



Izar Rodriguez

Ez dago zertan heriotza-zigorra jarri; gaizkiliak epaitu eta dagokixen zigorra jartziarekin nahikua.



Goiztiri Lara

Batzutan aplikatziaren alde nago: delinkuentzia kasuetan eta hilketak tartian direla... Arrazoi politikuengatik bada, ez.



Santiaga Franco

Heriotza-zigorraren aurka nago. Uste dot ezabatu egin biharko litzakela toki guztixetan, Estatu Batzuetan bai.

■ bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

BIDEBERRIKO EROSKIKO ZAMALANAK

M. Aranzabalek deitu digu aste honetan erredakziora, Udalak Bideberriko Eroskin gaeuz egiten dituzten karga eta deskarga lanak gaueko hamarretara mugatu eraztearekin asko poztu dela adierazteko. Dagoeneko, asper-asper egiten hasita ei zeuden inguruko bizilagunak, eta Udalak Eroskiri idatzia bidali izanak lasaitasuna sortu duela dio. Gainera, antzeko egoeran dauden beste herritarrendako ere albiste ona dela uste du, trafikoaren udal arautegia amaitzeko bidean da eta. "Horrelako arazorik bizi izan ez duenak, ez daki zer den zarata desatsegin horiek ohiko bihurtzea" esan digu M. Aranzabalek.



Gozogintzan
aintzindari.

Agirrebeña

JATETXEA




Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:

**Hemendik aurrera, maiatzera arte,
egukitz, zapatu eta jai bezperetan
emango ditugu afariak.
Zure Zerbitzura.**

Ongi etorri.

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Kizkur



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

■ adituen esanetan

Gastroenteritisa

Azken asteotan gastroenteritis-kasu asko egon dira gure artean. Sintoma nagusia beherakoa izatea da eta, horrez gain, sukarra, sabeleko mina, goragalea eta okadak ager daitezke. Haurren kasuan agente eragile ohizkoenak birusak dira, *rotavirus* izenekoa gehienbat. Helduei dagokienean, berriz, bakteriak izaten dira eta horien artean *salmonella enteritidis* izenekoa da nagusi. Kutsatutako ura edo elikagaiak hartzeagatik gastroenteritis-agerraldiak izaten dira behin baino gehiagotan eta, batez ere, uda partean. Beti ere gastroenteritis onbera eta larriaren arteko bereizketa egin behar da. Deshidratazio gogorra, elikagaien toxikapen susmoa edota ahoz hidratatzeko aukerarik ez badago, gaixoa ospitalera eroatea komeni da.

Gure artean deshidratazio larria ematea oso arraroa izaten da. Hidratazioa OMS delakoak gomendatutako



ITZIAR RICO

Medikua

"Sintoma nagusia beherakoa izaten da eta horrez gain sukarra, sabeleko mina edota goragalea ere ager daitezke"

ahozko rehidratazioaren (SRO) bitartez egin behar da. Badira komertzializatutako SRO-ak eta baita etxean egin ditzakegunak ere. Litro bat ur, bi limoiren ura, bikarbonato sodiko koilaratxokada erdia, bi azukre koilarakada eta gatz koilaratxokada erdi nahastea nahikoa da. Bestalde, ez dago frogatuta hasieran baraua egitea lagungarria denik. Hala ere, lehendabiziko egunetan esnea, eztaia, frutak, fibrak, grasak edota espezieak jateari utzi beharko diogu.

Sukarra eta sabeleko mina, aldiz, paracetamol delakoarekin tratatuko dira. Antibiotikoak kasu berezietarako bakarrik erabili, konplikazio septikoak saihesteko, esate baterako. Prebentzioari dagokionez, ohizko neurri higienikoak hartzea eskatzen da: eskuak garbitu, elikagaiak erabiltzean higiena zaindu eta ardura izatea ur eta elikagai susmagarriak hartzerakoan.



Kutsatutako elikagaien erruz gastroenteritis-agerraldiak izaten dira askotan.

■ bergarako gordailutik

IRIBE ETA ARISTIZABALDAR DOMINGO SANTOS

Imanol Sorondo

Iribe eta Aristizabalдар Domingo Santos bergararra da. Filosofia ikasketak Iruñean eta Baionako Gotzaitegian, Larrasoron, egin ditu; teologia, morala eta biblia, berriz, Salamancan. Hitzaldietarako eta aitorketarako baimenak jaso ditu 1797. urtean Osman, Baionan eta Iruñean. Lehendik, ordezkotako irakasle jardun du Salamancan teologia irakasten. Gero, Osmako Unibertsitateak teologiako doktoradutza eman dio, eta Santamarinako abade maisua izendatu dute. Bere izenean Ibaratar Bizente joan da kargoa Calahorra eta La Calzadako Gotzaiaren eskutik jasotzera; horretarako, bonatea ipini dio buruan, eta agiriak eman.

Santamarinan dauden bost abadeak joan dira elizara Domingo Santos abade maisuaren sarrerara eta, ohitura den bezala, sagarioaren, bataioko pontearen eta elizako ateen giltzak eman dizkiote; gero, mezatarako ardoaren eta uraren ontziak eta horrelako gauza gehiago ere eskaini dizkiote, parrokiako maisu bezala hartzen dutela aitortzeko. San Pedroko apaizak eta eliztar ugari egon dira ospakizunean.

Bergarako Seminarioaren erretore egin dute 1827. urtean eta ondoren, Rotako epaile Fernando VII.a erregeari esker.

Bi urte beranduago hil da. Gizaki guztiak bere mugak ditu eta, testamendua irakurtzeko elkartu direnen artean, Domingo Santosen gorraizea aitatu dute: "Bidean ez zen konturatzen gehienetan non abesten zuen zozoak eta non birgarroak".<



BIXENETE JAUREGI

Elkorori ongi-etorri afaria

Joan zen eguakitzean **Oxirondo elkarteko lagunek** ongi-etorri afaria eskaini zioten Jose Luis Elkorro Mahai Nazionaleko kide ohiari. Joan zen uztailen kartzelatik atera ondoren, Oxirondokoez omenalditxo bat egin nahi zioten Elkorori eta **22 lagun** elkartu ziren eguakitzeko afarian. Primeran afaldu eta, giro ederrean, tertulian izan ziren luzaroan jarraian.



Andaluzia eguna

Zapatuan Bergaran ospatutako Andaluzia eguna guztiz arrakastatsua gertatu zen. Arrasateko **Al Andalus** zentroaren eskutik, **andaluziar gastronomiako produktuak** dastatu abal izan ziren eguerdian San Martin Plazan. Bertan jarritako txiringitoan ez ziren falta izan ganbak, urdaiazpikoa, txibiak edota ardo finak eta moskatelak. Jarraian, Udal Pilotalekua jendez gainezka zegoela, **Udal Musika Bandak** kontzertua eskaini zuen, nabiz eta Alfredo Gonzalez zuzendariak



Bandaren saioa eten egin behar izan zuen arratsaldeko pilota jaialdirako lanean ari ziren Tele 5 telebista kateko teknikarien erruz. Ondoren, **Sueño de Andalucía** taldekoek hainbat pieza dantzatu zituzten kantxan bertan eta, bukatzeko, **Bandak, Aritzetak eta Al Andalus** zentroko abesbatzak "Salve rociera" izeneko pieza eskaini zuten ikusleen gozamenerako. Kontzertuko momenturik ederrena izan zen eta musikariek eta kantariek bigarren aldiz jo zuten pieza. Tarteetan, **Rafael Gomez** Al Andalus zentroko presidenteak hainbat opari jaso zituen **Udala eta Aritzetaren** izenean. Al Andaluseko kideak oso pozik ziren jasotako erantzunarekin eta datozen urteetan Andaluzia egunak jarraipena izateko itxaropena azaldu zuten.

Jubilatuen bazkaria

Domekan **amaiera** eman zitzaion Antzuola eta Bergarako jubilatuak antolatutako kultur hamabostaldiari. Eguerdian, amaiera ekitaldia izan zen Novedades aretoan eta ondoren, **200 lagun bildu ziren Udal Biltegian egindako herri bazkarian**. Jubilatuak oso pozik agertu ziren kultur hamabostaldiaren hirugarren edizioak jasotako erantzunagatik. Domekako bazkarian primerako giroa egon zen eta bazkalostean hainbat sari zozketatu zituzten bildutako artean. Egunari bukaera emateko dantzaldia izan zen eta goizeko ekitaldian aritutako **Orereta, Zumaia eta Bergarako jubilatuen abesbatzek** ere hainbat kantu eskaini zituzten. Datorren urtera arte!!



JOSE BERRUETA

Microsoft Windows 98

gida liburua

doan

ERANTZUNA BEREHALA

- ▶ Irakurterraza
- ▶ Argibideak urratsez urrats
- ▶ Ikono eta irudi argigarriak
- ▶ Sarrerak ordena alfabetikoan
- ▶ 160 orrialde koloretan
- ▶ Couche paperean inprimatua
- ▶ Tamaina: DIN A4

Nola jaso dezaket

WINDOWS 98 gida liburua?


1- Azaroaren 14ko egunkariarekin batera plantila bat jasoko duzu. Hor itsatsi behar dituzu hurrengo egunetan egunkariak argitaratuko dituen kupoiak.

2- Azaroaren 27an banatuko dugu azken kupoiak, eta azaroaren 28tik aurrera jaso ahal izango duzu zure kioskoan Windows 98 gida liburua. Hasieran jaso duzun plantila, eguneroko kupoiak itsatsita dituela, zure kioskoari eman beharko diozu.


3- Kupoiaren baten faltan gelditzen bazara, azaroaren 28an ordezkotako bat banatuko dugu; falta zaizun edozein kupoi ordezkotako dezake horrek.

OHARRA: liburua eskuratu ahal izateko, banaketara arazorik ez edukitzearen, 200 pezeta ordaindu beharko da.


HARPIDEDUN guztiek etxean jasoko dute liburua doan, kupoirik bildu gabe.



Babesleak:



www.euskadi.net



www.gipuzkoa.net



www.bizkaia.net

Egileak:



Zure independentzia!

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. **Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 46. zenbakia. 1999ko azaroaren 5a.

San Martzial konponduko dute

Aldundiak eta Udalak ermita konpontzeko dirulaguntza onartu dute

San Martzialgo ermita konpontzeko eskaera egin zuten auzokideek elizaren bitartez. Berrizte lanek Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Antzuolako Udalaren dirulaguntza jaso dute. Ermita konpontzeko eskaera ez da berria. Iñigo Ramirezek izan zuen eta orain dela urte batzuk ekimena. Dirudienez, ermitak ez dauka oinarririk; hau da, zuzenean lurrraren gainean eginda dago. Hori dela eta, jausteko arriskua dauka. Dagoeneko pitzadurak ere baditu San Martzialek.

Joan den abuztuan jaso zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza. Milioi bat PTA. ko dirulaguntza baimendu zuen diputazioak San Martzialgo ermita konpontzeko. Eta oraintxu Antzuolako Udalak beste milioi bat PTA. ematea onartu du. Diputazioak urria eta azaroa bitartean eskatu zuen berrizte lanak hastea. Eta auzokideek esan digutenez, "laister hasi beharko gara. Baina lanak hasi aurretik datorren urterako dirulaguntza jasoko genuen jakin nahi genuen". Dirudienez, orain jasotako laguntzarekin lanen lehenengo zatia baino ezin zuten egin. Horregatik bigarren zatirako laguntza ziurtatu nahi izan dute. Eta badirudi hasiera batean horretarako ere laguntza jasoko duela ermitak.

LEHENENGO ZATIA

Hiru milioi lortu dituzte San Martzialgo ermita konpontzeko auzokideek. Aldundiak eta Udalak milioi bana onartu dute eta beste milioia, elizak eta apezpikutzak jarri dute. Diru horrekin ermitari oinarri bat egingo diote. Horretarako pareta azpietan zuloa egin eta bete egingo

dituzte. "Ermita bustin-lurraren gainean eraikita dago eta harrria inongo oinarririk barik jarri zuten eraiki zutenean. Urteekin lurra mugitu egin da eta pitzadura handiak egin dira. Orain egingo den oinarria aurrealdean ezik beste hiru paretan azpian egingo da".

BIGARREN ZATIA

Auzoko ordezkariak adierazi digunez "bigarren aldiko lanak egiteko ziurrenik auzokideok ere dirua jarri beharko dugu". Hori dela eta, bilera egin zuten auzokide guztiek. Erabakitakoaren arabera "auzokideak prest agertu dira bigarren aldiko lanak egiteko dirua behar izanez gero laguntza ematera". Joan den astean Diputazioko bi teknikari egon ziren San Martzialen eta badirudi "datorren urtean ere dirulaguntza onartuko duela Aldundiak". 2.000 urterako, ordea, txosten bat aurkeztu beharko dute lanen nondik norakoak azalduz eta Aldundiko kultur zuzendariari aurkezteko.



Bustin lurraren gainean eraikita dago ermita.

LANEN HASIERA

Aste honetan ziren hastekoak konponketan lanak eta auzokideek adierazi digutenez, azaroa aldera amaituko dituzte egin beharreko lan guztiak. Gero bigarren zatiri ekin beharko diote. ■

■ ■ ■
Hiru milioi lortu dituzte San
Martzialgo ermita konpontzeko auzokideek
■ ■ ■

DIAPORAMAK LIBURUTEGIAN

Azaroaren 13an, diaporama emanaldia antolatu dute udal liburutegian. Gazte-txokoan aritzen diren neska-mutikoei "Amazonatik Mato Grossora bizikletaz" diapositiba emanaldia ikusteko aukera izango dute. Jon Arretxe idazle eta bidaiaria izango da kontalaria. Bere "Tuparen seme-alabak" liburuan oinarritu du emanaldia Jonek. Ikuskizuna azaroaren 13an, zapatuan, izango da arratsaldeko 18:00etan.

MENDI IRTEERA

Arrola Mendizale Elkarteak Salbadara mendi irteera antolatu du. Azaroaren 7an, domekan, izango da. Irteera goizeko 7:30etan izango da plazatik. Azaroaren 14an, domekan, Unanuara irteera antolatu du Arrolak. Lizarragatik (Nafarroa) abiatuko dira. Izen ematea, azaroaren 8an, astelehenean, arratsaldeko 19:30etatik 20:00etara Arrolaren egoitzan. Mendi irteera egun osozkoa izango da.

BIDAIAK IRUDIETAN

Arrola Mendi elkarteak diapositiba emanaldi bi antolatu ditu. Lehenengoa azaroaren 16an, martitzenean izango da. "Ordesako xarma" izenburupean Jabier Fernandez Sanchezek eskainiko du diapositiba emanaldia zinetokian, arratsaldeko 19:00etan. Bigarren emanaldia Andoni Areizagak eskainiko du. "Antton eta Gaizka, bide berriak Patagoniako Paine dorreetan" emankizuna eskainiko du, azaroaren 18an, eguenean, ordu eta toki berean.

IDOLAZEN BATZARRA

Idolaz euskara taldeak, bilera berezia antolatu du azaroaren 20rako. Orain arteko jarduna eta aurrera begira egin beharrezkoak jardungo dute udal liburutegian. Ordubeteko batzarra izango dela adierazi digute Idolazekoek. Goizeko 11:00etatik 12:00etara. Antzuolar guztiak gonbidatzen dituzte.



Antzuolak zazpi jokalarirekin amaitu zuen partidu...

Partidu iskanbilatsua Estalan

Joan zen zapatuan galdu egin zuen Antzuolako futbol talde nagusiak Estalan. 0 eta 2 irabazi zion Aurrera de Ondarroa taldeak Andoni Azkargortak zuzentzen duen taldeari. Baina galtzea baino txarragoa izan zen epailearen jarrera. Antzuolako taldeak zazpi jokalarirekin amaitu zuen norgehiagoka. Xabier Barkero, Eneko Segurola, Jon Arregi eta Bergarako Ander Elkoro kaleratu egin zituen, denak ere bigarren zatian. Iskanbila izugarria sortarazi zuten epailearen erabakiek ikusleen artean. Beraren aurka jardun zuten eta partiduen buka-

eran ere hika mika gogorra egon zen jokalariei, ikusle eta epailearen artean. Epaileak, gainera, Ertzantzari hots egon zion, beldurra zuela eta.

Ondarrutarrek bigarren zatian kontuztuzten bi golak. Lehen zatian penaltia bat hutsegini zuten, baina bigarren zatian ez zuten kale egin. Bigarren mailako errejionalean ari den herriko taldeak ez du orain arte partidurik galdu, nahiz eta federazioak 3 puntu kendu dizkion zigortua zegoen jokalaria bat zelairatzeagatik. Aste honetan, Eibartarrak taldearen aurka jokatu dute antzuolarrek.

HARIA LANTZEKO IKASTAROA

Boliloak, bainika eta antzekora-koak egiten ikasteko eskolak emango ditu Ines Elortzak. Bi maila egongo dira martitzenean sakontze eta egunetan hasierako maila (14:30-16:00). Izen ematea azaroaren 11 baino lehen, udaletxean.



GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

ANTZUOLA
Apaintetak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

Ondarea berreskuratzen Olaranen

Abenduaren 15ean ekingo diote Olarango etxea berrizteari. Arrasateko Langile Eskolako 52 lagun arituko dira horretan. Deba Garaiko Mankomunitateak egin du Olaran berrizteko proiektua eta helburua "enpresa txikiak sortzeko zentruak egitea da". Lanekin hasi aurretik sei hilabeteko ikastaroa egingo dute.



Abenduan ekingo diete lanei.

Lehenengo pisuan bost gela egongo dira enpresa ekimen berriendako zuzenduak. Bigarren solairuan beste sei egongo dituzte eta hirugarrenean, berriz, erakusketa gela bat egongo da, besteak beste. Lan hauek egiteko aurrekontua 216 milioi pasatxokoa da. %75 INEMek eman du eta gainerakoa Deba Garaiko Mankomunitateak.

BAILARAKO HILTEGIA

EAJk 3 batzorde, EHk bi eta EAk bat. Horrela banatu zituzten bailarako alkateek Deba bailarako Mankomunitateko batzordeak. Antzuolak, Mireia Unamuno alkateak, bailarako hiltegiako batzordea zuzenduko du. Aurreko astean, berriz, lehendakaria aukeratu zuten, Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea.

ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

Nagore Igarza eta Iñigo Ramirezen argazkiek irabazi zuten Udalak antolatutako argazki lehiaketa. Joan den asteburuan udaletxeko areto nagusian egon ziren ikusgai lehiaketara aurkeztutako lan guztiak.



"Ni neu?" (goian)
izan zen 25 urtetik
beherakoen
artean irabazlea.
"Eguzki-printzak
Astobixako lainoetik"
25 urtetik gorakoen artean.

Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon

1. Badaukazu kola? Nahi dozu yogur? / Eztaukat txikillia.

1.

2. Si nik esan dotsut hori. / Si igual da.

2.

Izen-abizenak eta telefonua:

ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

Nagore Igarza eta Iñigo Ramirezen argazkiek irabazi zuten Udalak antolatutako argazki lehiaketa. Joan den asteburuan udaletxeko areto nagusian egon ziren ikusgai lehiaketara aurkeztutako lan guztiak.



"Ni neu?" (goian)
izan zen 25 urtetik
beherakoen
artean irabazlea.
"Eguzki-printzak
Astobixako lainoetik"
25 urtetik gorakoen artean.

idolaz bertako hizkeria
ANTZUOLA

Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Umien gurasuak billeria dauke. /

2. Nekane, Imanol... etxeko seme-alaba danak alkartu ziren.

Sarrituak: Uxue Alberdi eta Ainhoa Garmendia

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegian,
DATORREN EGUAKITZA BAIÑO LEHEN.

Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko ditugu hamabostero.

Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

KALEGOI 19 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •

Marcelina eta Mari Kruz, Gipuzkoako sukaldari txapelketako irabazle

“Etxian moduan ibilli giñan han”

Marcelina Guridik eta Mari Kruz Lezetak, Gipuzkoako sukaldaritzaren lehiaketa irabazi zuten. Eurak Deba Garaiko bailara ordezkatu zuten Donostiako Sauce elkartearen, eta onenak izan ziren txapelketaren aritu ziren zortzi erretiratu bikoteraren artean. Aurretik Aretxabaletan irabazi zuten bailara ordezkatzeko aukera. Gisaua gertatu behar izan zuten. Kontatu digutenez, “gisauaren urtea dalako”.



Marcelinak eta Mari Kruzek trofeoa eta laundako bazkaria irabazi zuten.

Sukaldari bikainak zarete-la erakutsi duzue biok Profesionalak ez... Etxian ibiltzen garen moduan ibilli giñan han be. Eta hori kerten bareko ontzi-xa emon zoskuela!

Zela izan zen hori?

Ontzirik ez eruateko esan zoskuen. Aretxabaletara jun giñanian dana eruan giñuan, baiña Donostiara gisauan saltzia egittek erabili giñuana bakarrik eruateko; eta han kazuelarik ez, gero. Baiña artian be geuria zeguan onena, itxuria danez.

Gisauak zer behar du ona egoteko?

Bi ordu emon zoskuen, baiña nik banekixen bi ordu eta erdi hobe zala. Lau ordu be emoten dot nik gisaua egiten (Mari Kruz), txapan egitten dot eta. Han, ordia, bi ordutan. Bi kilo haragi, bi kilo patata eta olixo potia besterik etzozkuen emon. Gero guk ardao zurixa, kipulia, pipar berdía, tomatia, berakatza, sagar pusketa bat, pipar txorizeruan mamiña, honguak eta zanahorixa bota gonztan. Hori dana sartañian gorritu eta gero pasau. Saltsiak hori bihar dau.

Haragixa gorritu egitten dogu guk (Marcelina), eta han beste inok etzeban hori egin. Gure estilora geuk bakarrik egin giñuan.

Hain ona egongo zela bazenekiten?

Jun aurretik hemen, Jubilautan, gisaua gertau giñuan. Zortzi lagunendako egin giñuan eta errezeta horixe erabili giñuan. Hori Aretxabaletara jun aurretik egin giñuan. Aretxabaletan bailarako zortzi bikote egon giñan eta geuria onena izan zala eta, Donostian berriz gertau bihar izan giñuan.

Maila handia egon zen?

Beste danak aurretik junda zeren txapelketara. Gure modoko txapelak geuk bakarrik (Mari Kruz). Irabazi giñuan esan zebeñ iaz be mahai hortantxe egon zirenak irabazi zebela.

13:30etatik 16:45etara resultauan zain egon giñan. Kafia eta dana hartu giñuan eta ezebe esan aurretik nik zeozer igarri neban barruan. Zeozer pasau bihar zala antz emon notzan (Marcelina).

Gisaua egitea da zuen espezialitatea?

Parian daguana egitten dogu. Berdin da gixaua, redondua, txapiroak, kazia... Urtiekien ikasi dogu. Ezta oingo gaztien moduan eztabela ezer gertatzeko. Oingo gaztiak eztabe denporarik hartzen ezer gertatzeko. Ezkondu eta mahaiak bi jateko. Berakatza sopia besterik ez pazan be gertatu egin bihar (Marcelina). Dana ona daola esaten doste etxian (Mari Kruz). ■

■ ■ ■
 “Ezta oingo gaztien moduan. Eztabe denporarik hartzen ezer gertatzeko”
 ■ ■ ■

LARREA
TABERNA
 Kalebarren 17
 ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
 ANTZUOLA BERGARA
 • Apainketarako eta industriadako pinturak •
 • Paper margotuak •
 • Mokatetako eta tapizatuak •

Igor eta Txomin C.B.
 Margoak
 orokorrean
 ANTZUOLA 609 157 131
 BERGARA 609 150 164

GOROSTI
Taberna
 ☎ 943 76 62 96
 Zurrategi plaza ANTZUOLA

BEEP frankiziak: Estatuko informatika-kate liderra, orain Bergaran ere bai

Informatika munduak BEEP denda berri bat dauka Bergarako herritarren zerbitzura, Telesforo Aranzadi kalean, 3. eskuman.

BEEP informatika denden kate bat da; gaur egun, 250 salmenta toki baino gehiago ditu; beraz, sektorearen barruan liderra dugu eta, bide batez, estatuko merkatu osoan kobertura handia bermatzen ditu. BEEPek lehentasun handiko helburu dauka informatikaren mundu ikusgarria kontsumitzaileengana hurbiltzea. Alde horretatik, beti dabil aparteko promozio eta eskaintzak garatzen.

Gainera, BEEPeko bezeroek onura asko dituzte, prezio ezin hobeak eta informatikako eskaintza zabala baitauzkagu: ordenadoreak, eskanerrak, inpresorak, softwareak eta abar.

Aldi berean, BEEP dendek nazioarteko merkatuko informatika



Bergarako BEEP egoitza, Telesforo Aranzadi kaleko 3an.

markarik onenak banatzen dituzte: HEWLETT PACKARD, EPSON, TOSHIBA, OLIVETTI, MICROSOFT, COREL, CREATIVE... Beraz, BEEPek kontsumitzaileon intereseko berrikuntza informatiko eta ofimatiko guztiak dauzka zuen eskura. Gainera, BEEPek bere ordenadore marka propioa ere badauka: TAY®.

Ekiporik modernoek prezio oso kompetitiboetan dauzkazu TAY®n. Kalitateko test eta kontrol zehatzak pasatu dituzten ekipoak, 24 orduko testeoak egindakoak, ekoizpen-prozedura zorrotza izan dutenak; azken finean, kontsumitzaile bakoitzaren beharretara egokitutako ekipoak.

TAY® montatzeko kateak teknologiarik aurreratuena bermatzen

du: kalitaterik onena eta BEEP garrantia (3 urtekoa TAY® ordenadore guztiendako, bai eskulanean eta bai piezetan), eta gainera, kalitate hori ziurtatzeko, ISO 9002 kalitate ziurtagiria.

Horregatik guztiagatik, Bergarako herritar guztiok gure BEEP denda bisitatzera gonbidatzen zaituztegu.


BEEP BERGARA

Telesforo Aranzadi 3, eskum.
Tf. 943 76 91 27.



Bergarako BEEPen zuen zerbitzura izango dituzte, Aitor eta Arantzazu.





Hies Ekimena

Bederatzi urte prebentzioa lantzen

Hies Ekimenak sentsibilizazio kanpainak egingen ditu urtero bailarako herrietan. Jose Ignacio Telleria taldeko idazkariaren arabera, "urtetik urtera prebentzioa landu beharra dago, oraindik ere gazteen artean kutsatze arazo asko baitago. Sentsibilizazio kanpaina batik bat ikasleei zuzenduta dago, 14 urtetik gorakoak izaten direlako VIHaren problematikan murgildurik egon daitezkeenak. Gurea bezalako batzorde hiritarrak kenduta, ez dago zuzeneko prebentzioa egin ahal izateko aukera handirik. Eta ikastetxeetan lan ona egin daiteke zentzu horretan. Kontuan izan, azken datuen arabera, kutsatuen %50 inguru gazteak

Deba Garaiko Hies Ekimena batzorde hiritarra orain dela bederatzi urte sortu zen Arrasaten, eta, ordutik, Hiesaren inguruko prebentzioa eta sentsibilizazioa jorratu ditu gure eskualdean. Aste honetan sentsibilizazio astea egin dute Bergaran eta, besteak beste, gaitzaren inguruko komiki erakusketa, hitzaldiak edota bideo eta zine emanaldiak antolatu dituzte.

direla, 16 urtetik 30 urtera bitartekoak hain zuzen. Praktika arrikutsuekin kontuz ibili beharra dago, eta erantzukizuna geurea da". Astean zehar Hies Ekimenak jarritako komiki erakusketa ikusgai egon da Kultur Etxeko aretoan, eta, horrez gain, herriko ikastetxeei zuzendutako hitzaldiak izan dira; "positiboena, hori litzateke, jende gaztearengana hurbildu eta herri bakoitzeko tal-

deekin lan egiteko aukera izatea. Gure filosofia hori da, talde txikia garelako eta besteen laguntza ezinbestekoa zaigulako. Bergaran, esate baterako, Txapa Irratia eta Forum Cinematographe taldeen laguntza izan dugu aste hau antolatzeko, eta eskerrak eman nahi dizkiegu. Elkarlanean gauza interesgarriak egin daitezke".


HERRITARREI HURBILDU

Esan bezala, Hies Ekimena orain dela bederatzi urte sortu zen, Jon Salaberri zenak Hiesaren kontrako talde batera beharra zegoela ikusi ondoren. Hasiera hasieratik Deba Garaiko udalen jarraia ona izan zen, Telleriaren arabera, eta herritarrak ere taldetik gero eta gertu-



Hiesaren inguruan antolatutako sentsibilizazio kanpaina batik bat ikasleei zuzenduta dago, 14-30 urte bitartekoen artean kutsatze kasuak ematen direlako

Ezkerreko argazkian Hies Ekimena batzordeko bi lagun kalean jarritako mahai informatibo batean. Alboan, taldeak Hiesaren inguruan kaleratutako komiki bat. Orrialde honetan, Arrasaten antolatutako ikuskizun bateko irudia.



ARRASATE PRESS

go ei daude: "gaur egun jendeari gutxiago kostatzen zaio Hiesaren aurkako batzorde hiritar batengana joatea, gaiaren inguruan beldur gutxiago dago. Hori alde positiboa litzateke. Bestalde, egia da zientzia arloan aurrerapausuak eman direla, baina medikamentuek dituzten bigarren mailako efektuak ere kontuan hartzekoak dira. *Antiretrovirales* izenekoek, adibidez, emakumeengan efektu hormonalak dituzte, eta, beraz, ez dira panazea ere. Era berean, seropositiboek transplanterik jasotzeko ezintasuna ere salatu beharra dago. Eta, emakumeen kasuan, abortatu nahi zuten emakumeak koakzionatu izan dituzte behin baino gehiagotan, aurretik tronpetako ligadura egitera behartuz. Batzorde hiritarren presioari esker, hori gelditzea lortu da".

ANTZEKO EGOERA

Gaur egun sei bat lagun ari dira Hies Ekimena taldean lanean. Orokorrean, pertsona seropositiboen egoera ez da gehiegi aldatu Telleriaren iritziz: "orain bost bat urte hildako asko egon ziren Hiesak jota. Orain hildako gutxiago dago,

baina arazoa antzekoa da. Lehen, arduragusia bizirik irautea zen; orain, bizi itxaropena luzatzea lortu da, baina oraindik ere seropositiboak zailtasun askori egin behar dio aurre. Gaurko gizartean seropositiboa pertsona marjinatua da eta laguntza behar-beharrezkoa du. Orain, lehen ez zeukan denbora dauka, baina ez du bizitza kalitaterik, lan munduan aukera gutxi duelako eta ekonomiarekin zerikusia duten beste arlo askotan (aseguruak etabar) behin eta berriz trabak jartzen zaizkiolako. Zoritarrez, gauzak ez dira horrenbeste aldatu".

Deba Garaiko egoerara mugatuz, Telleriaren ustetan, gure bailarako egoera Euskal Herrikoarekin parekatu daiteke. "Madril eta Bartzelonarekin batera, Euskal Herria dago zerrendaburuan Hies kasuei begiratuta, nahiz eta estatistika gutxi egon. Prebentzioa bultzatu beharra dago, horixe baita Hiesari aurre egiteko modurik onena momentuz".

HIESDUNEN ERREJISTROA

Gizarteak Hiesak jotakoekin duen jarrerara salatzeko Telleriak errejistroaren gaia aipatzen du; "Hiesdun gaixoen

errejistro bat egin da, izen-deiturak, arrisku praktika eta intimitatea bortxatzen duten beste hainbat datu jasotzen dira. Batzorde hiritarren presioaren eraginez, errejistroaren gaia geldirik dago momentu honetan, baina argi dago seropositiboen oinarrizko eskubideak ez dituztela errespetatzen, eta guk hainbeste defenditu izan dugun isilpeko informazioa bortxatzen dela. Ez dugu usate errejistro hori egitea beharrezkoa denik, ospitaleetan nahikoa datu dituztelako gaixotasunaren eboluzioa eta kutsatze kasuen arrazoia aztertzeko. Gaixoen intimitatearen kontrako eraso argia da, eta horren aurka gaude".

Datorren abenduaren 1ean Hiesaren Nazioarteko Eguna ospatuko da. Telleriaren hitzetan, "egun hori eskaparate moduko bat izaten da, eta guk nahiago izaten dugu urteko egun guztietan Hiesaren aurka borrokatu. Dena dela, egun horretarako ere hainbat ekitaldi prestatuko ditugu, oraindik programa zehaztu ez dugun arren. Antzerkia, giza kateak eta bestelakoak ez dira faltako, eta espero dugu herritarrek parte hartzea antolatutako ekintzatan. Guztion laguntza ezinbestekoa da Hiesari aurre egiteko".<



"Oraindik ere seropositiboak zailtasun askori egin behar dio aurre. Gaurko gizartean seropositiboa marjinatuta dago" JOSE IGNACIO TELLERIA

Bergara eta Elgoibarren arteko futbol eta eskubaloi derbyak

Futbol talde nagusia etxeko lehen garaipenaren bila

Bergarako hirugarren mailako futbol taldeak Elgoibar taldea hartuko du bihar Agorrosinen, 15:45etatik aurrera. Bi taldeen orain arteko martxa ikusita, biharko partidua sekulako garrantzia dauka mahone-roen etorkizunari begira.

Biainen taldeak galdu egin ditu azken bost partidua, eta sailkapeneko azken tokian dago. Bergarak 1 eta 0eko emaitzarekin galdu zuen aurreko zapatuan Hernanin, eta etxeko partiduetan ez du orain arte partidurik irabazi aurtengo denboraldian. Agorrosinen jokaturako azken partiduan 1 eta 2ko emaitzarekin galdu zuen Bergarak Real Sociedad B taldearen aurka, ia partidua osoan bergararrak markagailuan aurretik izan arren.

Gauzak horrela, Bergarak beharrezkoa du bihar garaipena lortzea. Aurrean Elgoibar taldea izango du. Zuri-gorrien egoera ez da



Bergarak ez du aurtengo dendoraldian bere zaleen aurrean partidurik irabazi eta sailkapeneko azken tokian dago.

askoz hobea, sailkapeneko azken aurreko tokian baitago. Joan zen denboraldian 2. B. mailan aritu ondoren, hirugarren mailan uste baino arazo gehiago izan dituzte liga hasieran. Jose Mari Arakistain Eibar eta Beasaineko entrenatzaile ohiak hartu berri du taldearen gidaritzan, Arkotxa lehengo

entrenatzailea ordezkaturik. Hala ere, elgoibartar entrenatzaileak ez zuen estreinu onik izan, aurreko jardunaldian 0 eta 2 galdu baitzuten Mintxetan Soduperen aurka.

Bergararrei dagokienez, biharko partidurako, entrenatzaileak Gorka San Vicente eta Txonan Gallastegiren

bajak izango ditu; aurreko jardunaldian jokaterik izan ez zuten Oxel Apraiz eta Igor Alberdi aurrelariak, berriaz, jokatzeko moduan izango dira elgoibartarrek aurka. Biainen hitzetan, "partidua oso inportantea da guretzat eta hasieratik garaipenaren bila atera beharra daukagu".



Liderra bisitari Kiroldegian

Senior mutilen eskubaloi taldeak ere Elgoibarren aurka jokatuko du zapatuan, arratsaldeko 6:00etan, Labegarietako Kiroldegian. Bergarak ligako lehendabiziko partidua galdu zuen aurreko astean Donibaneren aurka, 30 eta 28ko emaitzarekin. Hain zuzen ere, Donibane eta Elgoibar dira oraindik partidurik galdu ez duten talde bakarrak. Bi taldeek ere aurtengo denboraldian jokatutako sei partidua irabazi dituzte.

Bergara euren atzetik dago sailkapenean, eta, beraz, biharko partidua erabakiorra izan daiteke. Xabier Lijó taldeko entrenatzaileak konfiantza osoa du bere jokalarientzako. "bihar behar-beharrezkoa dugu garaipena eta horretarako gure mailarik onena erakutsi beharko dugu, Elgoibarrek talde indartsua dauka eta. Zaleen laguntza ere ezinbestekoa izango da".

Argazkian,
Gorka Gonzalez,
Jaime Martin,
Carlos eta
Aitor Albisua,
Iker Gonzalez
eta Ivan
Chimeno.



Gonzalez anaiak txapelkun Estatuko Kyokushinkai txapelketan

Gorka eta Iker Gonzalez anaiak lehen postua eskuratu dute aurtengo Espainiako Kyokushinkai karateko txapelketan, junior eta promesen kategorian. Guztira, Estatu osoko 74 partaide izan ziren lehian eta kategoria bakoitzean hiru pisu bereiztu ziren: pisu arinak, erdikoak eta pisu astuneko karatekak, azkenik. Junior mailan (18 urtetik 20ra bitartekoak), pisu astunetan, Gorka Gonzalez nagusitu zen. Izandako hiru borroketan bere maisutasuna azaldu zuen Gorkak. Iker anaiak, berriz, bost borroka egin behar izan zituen eta

guztietan garaile atera zen. Promesetan (16-17 urte) bera izan genuen onena, pisu astunetan ere.

Jaime Martinek eta Ivan Chimenok ere hartu zuten parte Navalcarneron (Madrid) jokatuako txapelketan. Jaime Martin promesen kategoriako erdiko pisuetan aritu zen lehian eta bi aldiz borrokatu behar izan zuen bere kategoriako azpitxapelkun izango zenaren aurka. Borroka berdinduta gertatu arren, Martinek ezin izan zuen aurkakoa menderatu. Azkenik, senior mailan, Ivan Chimeno final laurdenetarako sailkatu zen,

eta Espainiako selekzioko karateka baten aurka galdu zuen. Lehendabiziko parte hartzea izan arren, maila bikaina erakutsi zuen Chimenok.

Carlos eta Aitor Albisua entrenatzaileak oso pozik daude ikasleek lortutako emaitzekin. Aitor Albisua- ren hitzetan, "horrelako txapelketa bat ondo gertatzeko luzaroan gogor entrenatu behar da eta, hala ere, gutxi batzuk animatzen dira txapelketara joaten. Kontuan izanik Estatu onenak bakarrik joaten direla bertara, lortutakoa baloratu egin behar da".

Mendi azoka

Pol-Pol Mendizale Taldeak, urtero bezala, eski eta mendi materialaren azoka txikia egingo du azaroaren 15etik 21era bitartean. Material biketa 12ra bitartean egingo da, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 20:30etara bitartean Pol-Poleko bulegoan.

Behobia

Datorren domekan, azaroaren 14an, Behobia-Donostia lasterketaren beste edizio bat jokatu da. Parte hartu nahi duten bergarrek Lazkano oinetako dandan edo Bolintxo kirol dandan eman dezakete izena. Bergaran izena emateko azken eguna bihar izango da.

Final laurdenak

Bergara K.E. ko pilota saileko Aranburuk eta Herranek Baque Txapelketako final laurdenak jokatu dituzte martitzenean, 19:30etan Udal Pilotalekuan. Herranek Dominguezen aurka jokatu du eta Aranburuk Hernandoren kontra neur-tuko ditu indarrak.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Elgoibar

Hirugarren maila
Zapatua. 15:45. Agorrosin

Bergara-Aretxabaleta

Lehen mailako kádetea
Zapatua. 17:30. Ipintza

Bergara-Burumendi

Lehen mailako jubenila
Domeka. 15:45. Agorrosin

ESKUBALDIA

Bergara-Bera Bera

Jubenil neska
Zapatua. 16:30. Kiroldegia

Bergara-Elgoibar

Senior mutilak
Zapatua. 18:00. Kiroldegia

Bergara-Usurbil

Kadete neska
Domeka. 10:45. Kiroldegia

Bergara-Arrasate

Jubenil mutilak
Domeka. 12:15. Kiroldegia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Azkoitia

Senior mutilak
Eguakitza. 22:30. Kiroldegia

SASKIBALDIA

Bergara-Askatuak

Kadete mutilak
Zapatua. 12:15.
Mariaren Lagundia

PILOTA

KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

Bergara-Eibar

Jubenilak (banaka)

Bergara-Elgeta

Lehen mailako seniorrak

Bergara-2-Ikaskirola

Bigarren mailako seniorrak
Eguakitza. 19:30

Udal Pilotalekua

Bergara-Zumarraga

Bigarren mailako kadeteak

Bergara-Beasain

Jubenilak

Domeka. 11:45

Osintuko pilotalekua

CAFE BAQUE TXAPELKETA

Final laurdenak

Dominguez-Herran (Bergara)

Lopez-Gracia

Aranburu (Bergara)-Hernando

Jauregi-Biteri

Martitzena. 19:30

Udal Pilotalekua



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Etengabe-Azpeitxi Jatetxea
12:00: Moskis-Sirimiri Eri
19:00: Agirrebeña-Bildurbarek
20:00: Amozkibar-Bayer

Ion Autoak
Vacalouras
Amozkibar
Agirrebeña

ZAPATUAN KANPOAN

10:00: Ion Autoak-Soropotoak
11:00: Torrekua-Vacalouras
16:00: Ortzí-Uve Bikoitza
17:00: FAC-Aterpe
18:00: Ufala-Errotagain

Torrekua
Moskis
FAC
Ufala
Aterpe

DOMEKAN BARRUAN

09:00: Mongatxurak-Tom Cat
16:00: Pagomendi-Pinturas Bergara
17:00: Agiñazpi-Soropotoak
18:00: A Ze Flaxa Etxagi-Ion Autoak
19:00: Bar Canalejas-Guadalest
20:00: Mo(ko)lotov-La Juve

Txipiron
Agiñazpi
A Ze Flaxa
Canalejas
Mo(ko)lotov
Guadalest

DOMEKAN KANPOAN

10:00: Txipiron-Komando Piperrak
11:00: Ari Ari-Irubide Jatetxea
12:00: Amilox-Amozkibar

Ari Ari
Amilox
Irubide

EMAITZAK

A MULTZOA

Azpeitxi Jatetxea-Moskis	13-0
Sirimiri Eri-La Juve	4-3
Irubide Jatetxea-Pinturas Bergara	3-2
Sirimiri Eri-Irubide Jatetxea	2-2
Pagomendi-Ari Ari	10-3
Pinturas Bergara-Mo(ko)lotov	3-1
La Juve-Etengabe	4-2

B MULTZOA

Amilox-Mongatxurak	0-5
Urruxurtu-Patatus	13-0
Bayer-Tom Cat Argandolas	4-2

C MULTZOA

Vacalouras-Buya	4-4
Agiñazpi-Shaktale	3-0
Uve Bikoitza-Agiñazpi	6-3
Shaktale-Torrekua	0-6

D MULTZOA

Artusamak-Xurruapak	3-3
Guadalest-Txipiron	3-1
Komando Piperrak-Bar Canalejas	3-7

GORA ETA BEHERA



Liderrak eta La Juve

Pagomendi, A Ze Flaxa Etxagi, Artusamak eta Errotagain ditugu orain arteko talderik sendoenak. Aipatzekoa da ere La Juvek lorturiko lehen garaipena eta Azpeitxi Moskis taldearen aurka lortutako garaipen erraza (13-0).



Komando Piperrak

Soropotoak, Komando Piperrak eta Patatus punturik gabe jarraitzen dute. Bestalde, Shaktalek C multzoko lidergoa eskuratzeko aukera paregabea galdu zuen astebukeran, jokatutako bi partiduetatik biak galdu baitzituen.

ARGI! Zorte txarra

Martitzenean, La Juve eta Etengabe taldeen arteko partiduan Etengabe-ko Xabier Zabaleta jokalaria larri zauritu zen. Zoritzarreko jokaldi batean, baloia jokatzen salto egin zuenean hanka txarto jarri zuen eta ligamentoa hautsi zuen. Horrelakoak ere gertatzen ei dira.

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	18	6
2. Azpeitxi Jatetxea	15	6
3. Irubide jatetxea	10	6
4. Moskis	9	6
5. Ari Ari	7	5
6. Mo(ko)lotov	7	6
7. Sirimiri Eri	7	5
8. Etengabe	6	6
9. Pinturas Bergara	3	6
10. La Juve	3	6

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	15	5
2. Uve Bikoitza	13	6
3. Shaktale	10	6
4. Ortzí	9	5
5. Vacalouras	7	6
6. Buya	7	6
7. Ion Autoak	6	4
8. Agiñazpi	6	5
9. Torrekua	3	6
10. Soropotoak	0	3

B multzoa

	P	J
1. Urruxurtu	13	6
2. Mongatxurak	11	5
3. Bayer	8	5
4. Patxaran Team	7	5
5. Bildurbarek Opel Lam	6	5
6. Amozkibar	6	3
7. Tom Cat Argandolas	6	5
8. Amilox	6	5
9. Agirrebeña Jatetxea	6	5
10. Patatus	0	6

D multzoa

	P	J
1. Artusamak	16	6
2. Errotagain	15	5
3. Guadalest	12	5
4. Xurruapak	11	6
5. Bar Canalejas	9	5
6. FAC	5	5
7. Txipiron	4	6
8. Aterpe	3	5
9. Ufala	3	5
10. Komando Piperrak	0	6

mahoneroak



ANDER BERRAONDO
BKEko jokalaria

Zapatuan bosgarren partidua galdu genuen jarraitzen, oraingoan Hernaniren aurka. Nire ustez, kanpoan etxean baino partidua hobekiago jokatu ditugu orain arte baina golik egin gabe zaila da punturik eskuratzeko. Hernanik lehen zatian gola egin zigun eta guk, berriz, zailtasunak izan genituen gol aukerak sortzeko, Alberdi eta Oxel aurrelariak baja izan zirelako eta Jose-txo zelako aurrean zegoen jokalaria bakarra. Gol aukerak bat edo beste izan genuen partidua berdintzeko baina ez genuen asmatu eta, azkenean, esku hutsik bueltatu ginen.

Beharbada partiduren batean esperientzia falta izan zaigu ezer positiboa lortzeko baina ez dut uste hori arazo nagusia denik. Taldea fisikoki ondo dago baina ez dugu zortirik izan orain arte.

Kontua da sailkapenean azken tokian gaudela eta zapatu honetan partidua zaila izango dugula Elgoibarren aurka. Hori eta hurrengo astekoa, Soduperen kontrakoak, erabakiorrak izango dira.




Irizar 2
☎ 943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Aldi autoak, S.A.
Zigarrola 1 • ARRASATE
Tf. 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65

kronika: nesken senior saskibaloia taldea

Denboraldiko lehen garaipena

Bergara 42

Mundarro 31

1999-X-30. 16:00
MARIAREN LAGUNDIA

Bergara: Mireia Muñoz (8 puntu), Olatz Laborda (4), Ana Belastegi (13), Jasone Zabala (3), Maite Zumarraga (5) -hasierako boskotea-, Yoana Rocha (2), Miriam Olabarria (4), Oihana Unamuno eta Saioa Sasiain.

Partzialak: 5-2, 15-4, 20-11 (atsedenaldia), 24-17, 32-17, 40-19 eta 42-31.

Nesken saskibaloia talde nagusiak aurtengo denboraldiko lehen garaipena lortu zuen zapatuan, Mundarro



Nesken taldeak errez menderatu zuen Mundarro zapatuan.

taldeari 42 eta 31ko emaitzarekin nagusitu ondoren. Iker Barberok entrenatzen duen taldeak orain arte jokatutako bi partiduetan galdu ondoren, garaipen honek konfiantza emango die bergarrei datozen jardunaldi begira. Zapatuan, uste

baino garaipen errezagoa lortu zuten. Partidua hasi bezain laister etxekoak aurretik jarri ziren markagailuan eta ia partidu osoan zehar abantaila erosoan izan zuten euren alde. Hamargarren minutura arte talde biek huts gehiegi egin zuten

saskiratze jaurtiketetan. Bere jokalariek nahi besteko intentsitatearekin jokatzen ez zihardutela ikusita, Barberok denbora eskatu eta hortik aurrera taldeen jokoa hobera egin zuen. Atsedendira 9 puntuko aldearekin joan ziren.

Bigarren zatian, jokoa antzekoa gertatu zen eta bergarrek lehen zatian lortutako abantailari eutsi ahal izan zioten, nahiz eta defentsan erasoan baino hobeto aritu. Ana Belastegik lan bikaina egin zuen uztaiazpian. Gainera, epaileak teknika bat adierazi zion Mundarroko entrenatzaileari eta jokaldi hori erabakiorra izan zen. Partidu amaieran Iker Barberok aitortu zigunez, "merezimendu osoz irabazi dugu, baina egia da behin baino gehiagotan epailea gure alde izan dugula".

Bergarak talde gaztea dauka aurten: gehienak senior mailako lehen urtekoak dira, eta beste bi kadetak. Entrenatzailearen asmoa sailkapenaren erdialdean geratzea da. Astebukaeraren Donostiako Etxadi taldearen aurka jokatuko dute.

JOSE MANUEL ITURROSPE / Autotelegidatuzalea

"Kotxe txikiak dominatzea ez da erraza"

Jose Manuel Iturrospek parte hartu zuen astebukeraren Zaragozan jokatutako auto telegidatuen Txapel-dunen Kopan. Bi proba falta direnean, bergararra Euskadi eta Kantabriako txapelketako liderra da 1/5 neurriko kotxeetan.

G. Noiz hasi zinen auto telegidatuekin?

E. Orain dela bost bat urte, la-gun bati ikusita. Lehen eskala txikiagoko kotxe batekin aritu nintzen, 1/8 neurrikoa eta orain FG marka alemaneko 1/5 neurriko bat daukat.

G. Zein da diferentzia?

E. Izugarria. Txikiak 120 km./orduko abiadura har-

tzen dute eta azelerazioa ere handiagoa daukate. Motorrak 45.000 erreboluziotik gorakoak dira eta kotxea dominatzea ez da batere erraza gertatzen.

G. Zer moduz Zaragozan?

E. Mekanika aldetik arazoak izan nituen eta hiru txandetatik bakarrean parte hartu ahal izan nuen. Nire aldean oso jende ona zegoen.

G. Euskadi eta Kantabriako txapelketan li-

derra zaitugu.

E. Bai, baina oraindik bi lasterketa falta dira, hilaren 21ekoa Bilbon eta abenduan Santanderrren izango dena. Lau lehenengo artean sailkatzearekin konformatzen naiz.

G. Non entrenatzen duzu? Afizio asko dago?

E. Getxon, zirkuitu bakarra bertan dagoelako. Afizioa gehiegi ez dago, denbora eta dirua eskatzen duelako honek. Korritzen hasteko kotxeak 250.000 pezetatik gora balio du. Bestalde, komunikabideetan ere ez diote jarraipen handirik egiten.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Pisua salgai Antzuolan. 94376 65 65.

Zabalotegi dorrea. 943 76 40 24.

EROSI

Pisua erosiko nuke Matxiategi inguruan. 649 27 54 36.

Pisua erosiko nuke Ibargain. 943 76 82 59.

ERRENTAN EMATEKO

Logela bat errentan Donostian, Amaran. 943 76 55 26 (gauze).

ERRENTAN HARTZEKO

Bergaran edo inguruan. 943 76 03 31.

Bikote batek Bergaran

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

4. LANA

ESKAITZAK

Administratibo edo idazkari bezala lan egingo nuke. Esperientzia. 943 76 35 95.

Etxeak garbitu edo zaharrak zainduko nituzke. 600 600 531.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94

Haurrak zaindu edo dendarri lanak egingo nituzke. 943 76 54 40

Etxe lanak egin, haurrak zaindu edo dendarri lanak egingo nituzke. 943 76 60 56 (Udarrak)

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 24

Astebukaeran lan egingo nuke. 943 76 44 04

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 619 15 44 06 (Frant.)

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrak zainduko nituzke. 609 77 01 33 (Aisia)

Umeak zaindu arazatzen. 943 76 34 48 (Marrak)

Umeak zaindu edo etxe lanak. 943 76 04 10

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 00 93.

Garajea salgai Ibargain. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Antzuolan, Lizarragan, salgai edo alokairuan. Deitu 670 49 87 40 telefonora.

Koldo Eleizalde. 943 76 36 34.

Garajea salgai Torrekuan. 943 76 28 24/39 49 78.

Garajea salgai Bolun. Deitu 943 76 19 69 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Antzuolan, Ibarrrondon. 943 76 61 15.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea errentan hartuko nuke Antzuolan edo Bergaran. 943 76 62 63.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren..100 m². 13,5 milioi. Deitu 943 76 11 13 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Ibargain, bulego lanetarako prestatuta. Deitu 607 34 46 58 telefonora.

Zubietan 136 m². Deitu 943 76 08 18 telefonora.

edo Arrasaten. 619 15 44 06 (Frant.)

Bergara. 943 76 56 51.

ETXE KONPARTITUAK

Jacan, ski denboraldian, pisua konpartitzeko jendea behar da. 617 85 71 19.

Gela edo pisua konpartitzeko nahiko nuke. 943 76 06 25 (Shane).

Etxea konpartituko nuke. 619 39 34 01 (Txomin).

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

Azkoitiko BILTEGI BATEN ARDURA

hartuko duen pertsona behar da.
Gida baimena beharrezkoa.
Euskara kontuan hartuko da.

943 76 47 90

MUJIKA Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 81

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Zubieta 26
943 76 48 08

Bar Los Cazadores

AZAROAREN 13an, zapatua, **MUS TXAPELKETA**
Bikoteko 1.000 pezeta. Hasiera 16:00etan.



ARRI

**Industri
hornidura**

Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 670 31 92 44.

ESKAERAK

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 05 55.

Emakumea: etxeko lanak eta umeak zaindu. 943 76 07 89 (gauzez).

Esperientziadun neska behar da andra edade-tua zaintzeko. 943 76 07 24 (gauzez).

Ume elbarritu bat zaindu eta etxeko lanetarako pertsona. 943 76 53 13.

Emakumea: etxeko lanak eta haurrak zaindu. 943 76 38 06.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Majisteritzan diplomatuak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak eman. 943 76 30 28 (Ana).

Kitarra. 943 76 45 73.

Frantses klaseak arratsaldez. 943 76 55 26.

Ingelesezko majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 21 09.

Solfeo eta piano klaseak. 943 76 72 69.

ESKAERAK

Enpresaritzatzaile mailako matematikako klaseak hartuko nituzke. 943 76 33 29 (arratsal.).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Renault 1
943 79 10 08.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Renault 5 (SS-P). 125.000. 943 76 26 19.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Ford Transit furgoneta (SS-AP) egoera onean. 943 76 02 55 (Karmelo).

Suzuki S1413 kotxea salgai, 4 errobera eta lona oparitzen ditut. 943 78 14 72.

Opel Corsa. Merke eta ondo. 943 76 02 89.

Vespa Iris 200 motorra (SS-AF). 943 76 06 92.

Renault Clio Williams (SS-AP). 945 24 11 25.

Suzuki DR 650 motorra. 943 76 52 08 (Sonia).

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

7. ANIMALIAK

SALDU

Hamsterrak salgai. 943 76 70 15.

BESTELAKOAK

Hiru txakur ar eta eme bat emateko. Borondatea. 943 76 49 09.

8. DENETARIK

SALDU

Karabina salgai egoera onean. 943 76 38 87.

Errepideko Zeus bizikleta salgai. 943 76 49 88.

Ume-kotxe estalkiduna. 943 76 06 89.

Apalak salgai. 943 76 25 79 (gauzez).

Canyon piragua salgai. 943 76 62 63.

Piragua bat salgai. Oso

egoera onean. 943 76 16 60 (Jabier).

Informatikako eta bulegoko materiala eta al-tzariak eta ordenagailu portatila. 607 34 46 58.

Termo bat saltzen ditut. 943 76 30 83 (Juli).

Play stationa: 3 joku, mandoa. 943 76 52 16.

Chaman piragua, txaleko berezia, pala eta kotxeko barrak. 50.000. 943 77 01 74 (Felix).

Airwalk snowboarda (1,55 m.) eta fijazioak salgai. 943 76 45 07.

Bizikleta-rodillo finkoa. 943 75 23 79 (Ana).

Kerosenoeko estufa ia berria. 943 76 01 99.


EROSI

Lehengo Peugeot 306 deportiborako llantak behar ditut. 943 76 08 26.

Xoxoa-ak ateratako LP-ak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar... 943 52 65 77.

GALDU

Erlojua galdu nuen urri erdialdera. 943 76 29 74.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 24902/2

GAS INSTALATZAILEA
Gasteiz. 25292/3

TELEKOMUNIKAZIO-INJINERUA
Bilbo. 25328/1

INGELES IRAKASLEA
Bilbo. 25375/3

INFORMATIKA TEKNIKARIA
Bilbo. 25452/1

INFORMATIKARIA
Bilbo. 25453/1

KOMERTZIALA
Ibai eskuinaldea. 23187/8

PROGRAMATZAILEA
Beasain. 25011/4

TELEFONO INSTALATZAILEAK
Arabar lautada. 23223/5

SUKALDARIAK, 4
Bilbo. 23453/4

TORNULARIA
Tolosa. 24210/3

FRESATZAILEA
Tolosa. 24212/2

PROGRAMATZAILEA
Goierri. 25451/1

ESTETIZISTA
Bilbo. 24431/2

MAKINA-ERREMINTA
Bilbo. 24800/7

OBRETARAKO PIOIA
Urola. 24819/3

INDUSTRI DELINEATZAILEA
Deba Behea. 25192/2

KOMERTZIALAK, 10
Bilbo. 23692/2

KOMERTZIALAK, 15
Bilbo. 23698/2

TARIMA JARTZAILEA
Bilbo. 24886/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Mutila behar dugu PORTEAK ETXERA ERUATEKO Autoduna.
943 76 11 12

Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a
Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA

Ur-bide
ITURGINTZA

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

IBARGYREN PENTSVAK
BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Amodiozko gutunen zortzigarren ediziorako deia zabaldu du Jardunek

Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketako zortzigarren ediziorako deia egin du Jardunek. Lanak urtarilaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira Kartzela Zaharrean.

Lanak gutun forma izan beharko dute eta luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa. Sari banaketa ekitaldia, ohikoa den bezala, otsailaren 14an, San Balentin egunean, izango da kartzela Zaharrean.

Irabazleak 75.000 pezetako saria jasoko du; bigarrenak 40.000 pezeta eta bergarar onenak 25.000. Horretaz gain, irakurlearen saria ere izango da, Xabier de Zeriok egindako eskultura. Aurten honako hauek osatuko diute epai-mahaia: Jasone Osoro idazle eta kazetaria, Mikel Urdangarin kantaria, Unai Iturriaga bertsolari eta idazlea eta Xabier Larrañaga iazko irabazlea. Bestalde, herriko ikastetxeetako ordezkariak irakurle-

aren epai-mahaia osatuko dute. Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketa Euskal Herrian antolatzen den era honetako arrakastatsu eta garrantzitsuenak da. Lehiaketan 15 urtetik gorakoek har-

dezakete parte eta bazter guztietatik bidalitako euskarazko amodiozko eskuratzak jasotzen dira. 1992. urtean BERGARAREN 100. alea ospatzeko antolatzen lehen aldiz.



Xabier Larrañaga iazko irabazlea Pako Aristi eta Mikel Markez alboetan dituela.

Gazte Lokalari buruzko bideo klipa aurkeztuko da tabernetan

Gazte Lokalaren aldekoek aurtengo maiatzean antolatutako Gazte Asteburuan hartutako irudiek eta proiekturako herriko musika taldeek grabatutako abestiarekin egindako bideo-klipa aurkeztuko da eguaitz honetan herriko hainbat tabernetan: 22:00etan, Pol-Polen; 22:15etan, Ziri-

poten; 22:30etan, Arranon, eta 22:45tan, Popi's-en. Bideo-klipa Iñigo Herrerosek egin du.

Bestalde, Gazte Lokalari buruzko pegatina lehiaketa antolatu dute. Lanak abenduaren 1a baino lehen aurkeztu beharko dira. Saria, 5.000 pezetako erosketa bonoa Etxeparen gatzatzeko.

Mariaren Lagundiaren liburua eguaztenean aurkeztuko da

Mariaren Lagundiak datozen bi asteotan emango die amaiera bigarren mendeurrenako ospakizunei. Datorren eguaztenean, hilak 10, "Mariaren Lagundia Bergaran. Bi mendeko historia" izenburuko liburua aurkeztuko da, 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan. Liburuaren aurkezpen eki-

taldian Manoli Urrea egilea izango da. Biharamonean, Pilar Foz y Foz ikastetxe bertako historiagileak, hitzaldia emango du honako gaiaren inguruan: "Bergarako Enseñanza XIX. mendean. Komunikazioei zabalik zegoen ikastetxea". Hitzaldia Mariaren Lagundia ikastolan izango da, 19:00etan.

GASTON Y DANIELA

Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

PANA DE ROKUA
BATE JXAL

Asteburuetan bertako
babak eta saibeskia

SALBADOR 10 ELGETA
TF. 943 76 82 73



Mondo Fumatore (goian) eta Hefner (behean) taldeak Jam aretoan izango dira datorren eguenean.

Hefner eta Mondo Fumatore

Ingalaterra eta Berlineko pop doinuak eguenerako

Hefner britainiarren eta Mondo Fumatore berlindarren kontzertua iragarri da datorren eguenerako, 21:30etarako, Jam aretoan Udazken Kulturalean barruan. Lehenengok bigarren diskoa eskainiko dute, lehen entzuketan geratzen diren melodiez eta hitz ederrez osatutakoa.

Mondo Fumatore berlindar hirukoiteak, berriz, "Rolling like an egg" estraineko diskoa aurkeztuko du Bergaran. Musikari dagokionez, Velvet, Blues Explosion, Pavement edota Beck berarekin harremanu ditu batek baino gehiagok. Alemaniako musika zirkuitu underground-ean oso ezagunak eta estimatuak dira eta Luna, Come, Deus edota Placebo bezalako taldeekin batera jo izan dute. Kontzerturako sarrerak 1.000 pezetan salduko dira; gazte eta langabetuentzat, 750 pezetan.

Bestalde, joan zen eguakitzean Red House taldeak Kartzela Zaharrean

emandako kontzertu bikainaren ostean, Jean Jaques Milteau ahoko soinu jo-tzailearen eta Manu Galvin kitarrajolearen blues, jazz eta rock emanaldiarekin gozatzeko aukera izango dugu domekan 20:30etan Jam aretoan. Kontzertu hau ere Udazken Kulturalekoa da.



■ salduenak / urria

LIBURUAK

EUSKARAZ

1. LISBOAKO SETIOAREN HISTORIA
Jose Saramago. Ibaizabal
2. SINONIMOEN HIZTEGIA
Uzei
3. ENAZ BANAZ
Xabier Amuriza. Bertsolari Elkarte
4. BORROKAREN GORRIAN
Bikila. Txalaparta
5. PUTZU
Txillardegui. Elkar

ERDARAZ

1. EL ULTIMO JUDIO
Noah Gordon. Ediciones B
2. MI SIGLO
Gunter Grass. Alfaguara
3. TODO UN HOMBRE
Tom Wolfe. Ediciones B
4. CHULAS Y FAMOSAS
Terenci Moix. Planeta
5. GARZON, LA OTRA CARA
Pepe Rei. Susa

Iturria: Bilintx, Peñalba eta Zangitu

DISKOAK

1. 19 DIAS Y 500 NOCHES
Joaquin Sabina
2. IKASTEN
Berri txarrak
3. UN MAR DE CONFIANZA
Luz Casal
4. SONGS ALLY MACBEAL
Soinu Banda
5. BABY ONE MORE TIME
Britney Spears
6. CLAPTON CHRONICLER
Eric Clapton
7. TOMA KETAMA
Ketama

Iturria: Bilintx eta Zaiazko

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ekzer eskuma

1. Nekez aldatzen dena. 2. Arloa. Toka, zuen. 3. Usain txarra. Har ezan! 4. Neba. Letoniako hiriburua. 5. Har ezak! Ahuntzaren arra. 6. Sarrera. Usa arra. 7. Gar. Sortu zintuena. Ardi, hitz elkarketan. 8. Uranioa. Bete. Sail. 9. Higuinak. Ikas eta Ari. 10. Buka. Garoa, iratzea. Sufrea.

Goitik behera

1. Libertatea. 2. Zerua lainoz estali. Amerizioa. 3. Daude. Bokala. Barazki-mota. 4. Atsegina. Nahikoa! 5. Katu txikia. 6. Lehenengoa. Kontsonantea. Nafarroako urtegia. Modu atzizkia. 7. Gaueko argia. Bokala. Röntgen. 8. Titanioa. Hedabide-mota. 9. Ausartak. 10. Artzainek etxolara eramaten duten janari-kopurua. Marokoko mendialdea.


Soluzioa

10. Anoa. Atlas. 9. Zangarra. 8. A. R. 8. T. Irratia. 6. A. S. Esa. Ki. 4. Alala. Askil. 2. Lainotu. Am. Goitik behera. 10. Anoa. Iza. S. 8. U. Ase. Aial. 6. Ate. Usarra. 4. Anala. Riga. 2. Salla. Zian. Ekzer eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar




Lehen Bergarako banketxe batean eta orain Udaletxean dauden bi koadro hauetan, nortzuk agertzen dira eta nor da egilea?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Zenbat denbora daroa kartzelan Jose Mari Etxaniz preso bergararrak?
A- 19 urte eta 7 hilabete
B- 18 urte eta 7 hilabete
C- 20 urte eta 7 hilabete
- Gaur arte, sailkapeneko zenbagarren tokian dago BKEko futbol talde nagusia?
A- 18.
B- 20.
C- 10.
- Nork idatzi du aurki aurkeztuko den Mariaren Lagundiari buruzko liburua?
A- Jose Angel Mikeok
B- Gotzon Iparragirrek
C- Manoli Urrak



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, Paul Azkargortarentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Pauli! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Elhuyar anaiak / Ikerleku kalea** Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-C**

BONOFOTOA _____

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Campo Viejo
Errioxako ardo beltza (ondua)
699 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onena!

Irudi eta soinu ikasketak egin zittuan Andoainen eta administaritza ikasi zeban Eibarren. Hogeita hamar urte dauzka. Orain dala bi urte eta erditik Goxo-Toki gozotegixan dihardu dendari lanetan.

Nerea Zubimendi

Goxozalia zara?

Ez naiz oso goxozalia. Dultzia baiño, txemikixa nahixago: urdaiazpikua, txorizua...

Pastelak ala tartak?

Pastel txikixak.

Gustokuena, zein?

Arroz pastela.

Eta tartarik onena, zein?

Sagar tarta gustatzen jat gehixen.

Zuen espezialidadia?

Babarroi tarta, natazko puddinga.

Dultzia jateko momenturik onena?

Edozein.

Bonboirik oparitzen dozu?

Pastak gehixago.

Errepartua egitteko, oiñez ala automobilian?

Herri barruan oiñez, bestela autoz.

Zeiñi botako zontsake tarta bat aurpegira?

Lecquio kondeari.

Emakume ala gizakume gehixago dator gozotegira?

Emakumiak normalian, gaiñera argi edukitzen dabe zer nahi daben.

Neska-mutikoez zer erosten dabe?

Litxarrerixak: gusanituak, Kinder arrautzak...

Umore onekua ala txarrekuia zara?

Onekua.

Zerekin egitten dozu barre?

Umiekin.

Eta zerk jartzen zaittu sutan?

Berandu dabillen jendiak.

Usain bat?

Bedarrarena, egunsentixan.

Oroitzapen on bat?

Txikittako udako oporrak.

Manixa bat?

Puntualidadia.

Kolore bat?

Gorrixa eta beltza.

Jantzi bat?

Bakeruak.

Non erosten dozu erropia?

Bergaran, Gasteizen...

Hobby bat?

Leitzia.

Liburu bat gomendatzekotan?

Cafe nostalgia, Zoe Valdesena.

Animalixa bat?

Txakurra.

Gustoko filme bat?

Psicosis.

Aktore bat?

Michael Douglas eta Jack Nicholson.

Kiroliek egitten dozu?

Bai, aerobika eta bizikleta.

Herriko txoko bat?

Espoloia.

Udazkeneko gauzarik onena?

Paisaia.



ARDATZA
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxes: 943 76 20 29

aula@xxi multimedia eta animazioa diseinu grafikoa
internet web diseinu industrialia ofimatika
photoshop maketazioa infografia 3D

Zure ikasketa zentru berria

Irakasle bat taldeko
ikasleko ordenadore bana

Aula XXI, Mintegi kalea, 5 (tokieder) 20570 BERGARA

943-76 59 20

POL-POL
Taberna

☎ 943 76 07 78

Antzuolarrak jaietan

Aste honetan, 1960 inguruan jaietan ateratako argazkia erakusten dizuegu. Bertan, Antzuolako lagun koadrila agertzen zaigu, 20 bat urteko mutil koskorrak, jai giroan. Garai hartan ohikoa zen herrietako festetan kalean argazkia ateratzea. Horretarako propio jarritako izara margotuaren aurrealdean jarri, eta "klik" atera zieten erretratua.

Eguna zela pasatu zuten ez dakigu, baina itxuragatik antzeman daiteke primeran zebiltzala. Honako hauek dira argazkian ageri direnak, ezkerretik hasita.

Zutik: Bittor Ezkurra, Jose Luis Lezeta eta Alberto Zuloaga.

Jarrita: Andres Toledo, Juanito Lezeta eta Jose Luis Kortabarría (etzanda).

Argazkia: Jose Luis Kortabarría



ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68



umelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Azaroa

6	20:00	Loreto Imaz organu jolearen kontzertua	San Pedro	Doan
11	21:30	Mondo Fumatore eta Hefner pop-rock taldeen kontzertua	Jam aretoa	1.000-750*
12	22:30	Dakota antzerki obra; Tanttaka taldea	Novedades	1.000-750*
13	20:00	Madrieko Unibertsitate Autonomoko Orkestra eta Abesbatzaren kontzertua	San Pedro parrokia	Doan
20	22:00	Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Final laurdenetako bertso saioa.	Udal pilotalekua	700
21	11:30	Sta. Zeziliako kalejira , Udal Txistulari Banda eta Musika Bandarekin.		
	12:30	Udal Musika Bandaren kontzertua	Udal pilotal.	Doan
27	20:00	Pedro Guallar eta Maria Pilar Olaizola organu joleen kontzertua.	San Pedro parrokia	Doan

Abendua

3	19:00	Musika eskolaren kontzertua	Udal pilotal.	Doan
4	20:00	Coro de la Hermandad de Nuestra Señora del Rocio de Espartinas-ek emandako kontzertua	Santa Marina parrokia	Doan
11	19:00	Ur-Klang , soka-laukotearen kontzertua	Udaletxeko pleno aretoa	500-400*
17	22:00	Sin City Six, Teen Docs eta The Meows taldeen rock kontzertua	Jam aretoa	800-600*
18	12:00	Udal Txistulari Bandaren kalejira		
	22:30	Gabonetako kontzertua: Udal Musika Banda, Aritzeta Abesbatza, Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoia	Udal pilotalekua	1.000-750*
26	19:00	Eduardo Baranzano eta "Airean" taldearen kitarra kontzertua	Udaletxeko pleno aretoa	500-400*
31	16:30 / 18:00	Mari Sorgin , antzezlan	Zabalotegi	500-300*

* Guztira txartelarekin edo langabetu txartelarekin

Erakusketak

Bi lekuetako ordutegia:

Astelehenerdik egualkitzera: 18:00-21:00

Zapatu eta jaiegunak: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00

KULTUR ETXEAN Errotalde jauregia

Azaroak 2-6

Deba Garaiko I. Komikien lehiaketa. HIES Ekimenak antolatua

Azaroak 10-21

Iker Badies Korkostegiren akuarelak

Azaroak 22-28

Karegintzari buruzko erakusketa

Abenduak 4-12

Filatelia eta Numismatika taldearen bilduma bitxiaren erakusketa

BEART LOKALEAN Bolu 49

Abenduak 17-26

Begarako pintoreen erakusketa

Abenduak 29-Urtarrilak 9

Begarako eskultoreen erakusketa

Eta gainera...

Liburu azoka

Azaroak 9-28. San Martin plazan

Eskaparate-lehiaketa

Abenduak 15-29. Bedelkarren laguntzaz

Olentzeroren laguntzaileek karta jasotzea

Abenduak 24. 19:00. San Martin plazan

Zinea


Eguenero, 20:00etan, zine klubeko pelikula hautatuen emanaldia



ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK



BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO **RK AUZ**

FAGOR 

ALTZARIAK

SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA